



## Europatik lau domina

Ioseba Fernandez bikain aritu da Europako Txapelketan / 17

2018-09-07 OSTIRALA / 653. ZENBAKIA / 2. AROA  
SAKANAKO ASTEKARIA GUAIXE.EUS TOKIKOM



**Etxeberri, Hiriberri eta Ziordia festetan daude. Altsasu ostegunean lekukoa hartzeko prest** / 10-12

**"Eman like euskarari". Euskaltegian izena emateko gonbidapena egin dute** / 5

**Altsasuko Otadiko Kristo Deuna Txapelketaren 3. jardunaldia bihar Burunda frontoian** / 14



**Nafarroako Kopako finala jokatu dute Osasuna Magnak eta Ribera Navarrak bihar Altsasun** / 16

**Agorrilean mustu zen Urdiaingo gaztetxe berriarekin bederatzi dira ibarrean dauden gazte egoitzak** / 8

**Iortia kultur gunearen 15. urteurrena "merezki bezala" ospatzeko, 'Marabunta'** / 22



## Otsaportillo gehiago

Omenaldiaren egunean Lizarrustin hezurdura bat atera zuten / 6

**SAKANA**  
Itsasi AEK euskaltegia

Izena emateko azken eguna:  
irailaren 21a

Gartzia Ximenez 46, behea  
ALTSASU  
948 468 258  
sakana@aek.eus

Diru-laguntzak

Sakanako Mark: BEKAK

**aek** euskara praktikoa

Zu hemen zaude,  
AEK ere bai



EUSKARA-IKASTAROAK



Nerea Anton, Jasone Auzmendi, Nerea Larraza eta Alex Santano. EñAUT AGIRREBENGOA APAOLAZA

# Ikasle sakandarren amets amerikarra

Joan zen ikasturtean Batxillergoko lehen maila Ipar Amerikan ikasteko aukera izan zuten hiru ikasle sakandarrek, Amancio Ortega fundazioak emaniko bekei esker. Esperientzia "aberasgarria" bizi izan dute hirurek. Hastear den ikasturteari begira, 17 beka banatu dira Nafarroan, eta bat etorri da Sakanara.

## Eñaut Agirrebengoa Apaolaza

Batxillergoko lehen ikasturtea Ipar Amerikan egin dezaten Amancio Ortega fundazioak beka ematen ditu DBH 4ko ikasleen artean. Joan den urtean hiru sakandarrek jaso zuten beka: Maitane Anton (Pennsyl-

vania, AEB), Jasone Auzmendi (Minnesota, AEB) eta Nerea Larraza (Ontario, Kanada). Aurtan Kanadarako bidea hartu berri duena Alex Santano da.

**Esperientzia berri hau bizitzeko gogotsu al zaude, Alex?**

ALEX SANTANO: Batetik bai, baina bestetik, ez hainbeste. Kristoren bizipenak izango ditut han, uste dut oso ondo pasako dudala, baina, era berean, asko nabarituko ditut faltan lagunak eta familia. Horrek ziurgabetasun pixka bat eragiten dit.

## Kanada ezagutuko duzu. Zer itxaropen dituzu?

A.S.: Jende mota eta kultura desberdinak ezagutuko ditut, eta aukera izango dut gauza berriak probatzeko. Uste dut honi esker asko hobetuko dela nire ingeles maila. Agian, hiz-

kuntzarekin arazoren bat izango dut hasieran, baina ziur naiz ohitzen joango naizela denborak aurrera egin ahala. Matematiketan ere badut zer hobetua, eta agian kosta egingo zait egokitzea. **Zuen kasuan, hirukote, itxaropenak goitik behera bete dira, edo ezus-tekoren bat ere izan duzue?**

MAITANE ANTON: Nik ez nuen espero han egin nituen zenbait gauza egitea. Uste nuen kirol gutxi egingo nuela, baina inoiz baino gehiago egin dut. Asko zentratu naiz kirolean. Pozarren nago bizitako esperientziarekin. NEREA LARRAZA: Nire kasuan ere, ez dira bete hainbat aurreikuspen. Uste nuen ez nintzela aterako Kingstonetik (Kanada), baina azkenean toki pila ezagutu dut: Montreal, Toronto... Hemen telebistaz ikusten dituzun gauzak zuzenean bizitzeko aukera izan dut. Oso gustura ibili naiz.

JASONE AUZMENDI: Nik uste nuen ingelesa besterik ez nuela ikasiko, baina ez da hala izan. Esperientzia honek pertsona bezala hazten lagundu dit, gauza berri asko ikasi ditudalako, ingelesaz aparte.

## Zuek zer moduz moldatu zarete ingelesarekin?

J.A.: Nik faseak izan ditut. Hasieran dena ulertzen nuen, baina arazoak nituen komunikatzeko. Pixkanaka egokituz joan nintzen ordea, eta azkenean ez dut inolako arazorik izan.

## Alex, esperientzia honek zer onura uste duzu ekarriko dizkizula arlo pertsonalean?

A.S.: Nik uste bizitzari buruzko gauza berriak ikasiko ditudala. Horrek pertsona bezala hazten lagunduko dit. Etxetik atera eta beste toki bat ezagutzeak ikuspuntu zabalago bat emango didalakoan nago. Eta ingelesez dudak hitz-jarioak ere nabarmen egingo du hobera, ez dut zalantzarik.

## Zuei, neskak, zein da bidaiak honek egin dizuen ekarpen nagusia?

M.A.: Orain lehen baino askoz ere independenteagoa naiz. Han gauza asko egin ditut nire kabuz. Egunerokotasunerako baliaga-



**EGOKI**  
VENTANAS PVC LEIHOAK  
www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA  
egoki@ventanasegoki.com



Acrylcolor  
SISTEMA BERRIA  
KOLEOREA GEHIAGO ETA HOBE

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti

ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

rriak diren gauza pila bat ikasi ditut. Eta bada kontu ironiko bat: orain dezentez hobeto jaten dut. Arraroa da, baina elikadura osasuntsuagoa dut orain. Laburbilduz, uste dut pertsona bezala asko aldatu naizela, pentsaera aldetik-eta.

N.L.: Ni hobeki erlazionatzen naiz orain jendearekin. Hara iristean ez dago inor gida zaitzan, mundu guztia da ezezaguna. Zuk eman behar dituzu pausoak jendea ezagutu eta harremanak sortzeko. Behin hori eginda, hurrengo urratsak ematea askoz samurragoa da, eta, era berean, errazago ezagutzen duzu jendea.

J.A.: Nik ikuspuntu irekiagoa dut orain bestelako kulturekiko. Han kultura askoren arteko nahasketa dago, eta oso aberasgarria da hori bertatik bertara ezagutzeko. Bestalde, ikasteko gogo handiagoa ere badut orain.

**Desberdintasunik nabaritu al duzue ikasteko metodologiari dagokionez?**

M.A.: Bai, eta niri gehiago gustatu zait hangoa. Onena da zuk erabaki dezakezula zer eta noiz ikasi nahi duzun. Klase batzuk derrigorrezkoak dira, noski, baina nahi duzunean izan ditzaitez. Orduan, adibidez matematikekin hasi, eta dena ez duzu urte batean ematen. Ikasturte bakoitza gauza batean espezializatzen da. Askoz ere errazagoa da horrela. Gero, nik unibertsitaterako prestatzeko klase berezi batzuk izan ditut, eta historian adibidez, apunteak egiten ikasi dut, ez genuelako libururik. Irakasleak azalpenak ematen zituen, eta hark esaten zuena jaso behar genuen. Matematiketan ere gauza asko ikasi ditut.

J.A.: Unibertsitatera joateko kreditu batzuk behar dira, eta horiek lortzeko zure burua nahi bezala antola dezakezu. Adibidez, aukera duzu denak Batxillergoko lehen urtean eskuratzeko. Prestakuntza programa pila dute. Hemen adar batzuk dituzu: zientziak, letrak... Han, ordea, ez da horrela. Nolabaiteko nahasketa egiten dute, eta asko ikasten da. Dena proiektuak egiten da; hemengo baina metodologia praktikoa da, alegia.

N.L.: Nire kasuan, ikasgaiaren arabera da. Baina ia klase guztietan egiten zen lan proiektuak. Beste kasu batzuetan, ez zegoen proiekturik, azterketa orokor bat baizik.

M.A.: Nik ia astero izan ditut azterketak, eta gero proba oro-



Nerea Larraza, Nerea Anton, Jasone Auzmendi, eta Alex Santano. EÑAUT AGIRREBENGOA APAOLAZA

korrago bat egin behar izan dut hiruhilekoaren bukaeran. Niri hangoa zailagoa dela iruditu zait, baina esleitu dizkidaten ikasgaiengatik. Baina eramateko modua askoz ere errazagoa dela deritzot.

J.A.: Ni urte sabatikoa hartzeko pentsamenduarekin joan nintzen, beraz, klase oso errazak hartu nituen. Zailtasun aldetik ez dut arazorik izan.

**Alex, esan duten hori al da han topatzea espero duzuna?**

A.S.: Bai, gutxi gorabehera. Akademikoki erraztasunak izatea espero dut. Horrez gain, uste dut metodologia aldetik alde nahiko handia sumatuko dudala, baina horrek ez dit beldurrik ematen. Gauza berriak ikusi eta ikasteko gogotsu nago. Azken finean, hori da aukera honen funtsa.

**Badakizu zer ikasgai izango dituzun?**

A.S.: Zortzi aukeratu behar ditut, eta horietako lau, nahitaez, matematika, ingelesa, zientzietako ikasgai bat eta letretako beste bat izan behar dira. Eta beste laurak, nire kontu. Han bertan erabakiko dut zer ikasgai aukeratuko ditudan.

**Han familia baten etxean igarotzen da urtea. Alex, haiekin aurrez harremanetan jarri zara?**

A.S.: 50 urteko bikote bat da. Alaba bat dute, baina jada ez da etxean bizi. Nirekin batera ikasle brasildar bat egongo da. Hori lagungarri izango zait.

**"LEHEN ASTEETAN ZAILA IZAN ZEN LAGUNAK ONDOAN EZ IZATEA. DENBORAK KONPONTZEN DU"**

**Zuek, hirukote, zer moduz moldatu zarete familiarekin?**

N.L.: Ondo. Elkarrekin denbora pasatu ahala elkar ezagutzen eta harremana sendotzen joan gara. Jende jatorra eta irekia da; zerbaitengatik daude kanpoko norbaiti beren etxeko ateak irekitzeko prest.

J.A.: Ni nahiko gustura. Ikamika batzuk izan ditugu, izaera kontuagatik, baina, tira, moldatu gara. Urte bat pasa behar da han, eta hobe da giro txarrik ez sortzea.

M.A.: Ni oso ongi moldatu naiz familiarekin. Aita otsailean hona etortzeko da, bisita egin eta Santa Ageda edo inauteriak ikustera. Harreman oso ona sortu da gure artean, eta elkarren berri izaten segitu nahi nuke.

**Eta ikasle eta irakasleekin, nolako harremana izan duzue?**

J.A.: Deigarria iruditu zitzaidan han askoz gehiago miresten dituztela irakasleak. Irekiagoak dira, eta beti daude zurekin hitz egiteko eta laguntzeko prest.

M.A.: Laguntza behar izanez gero, ez zaie inporta arratsaldean zurekin gelditzea. Halakoak asko eskertzen dituzte ikasleek, eta horregatik uste dut hemen baino harreman hobea dutela irakasleekin.

N.L.: Eta ikasleen arteko harremanari dagokionez, ez dago kuadrilla definiturik. Denekin egoten dira denak, eta, hala, errazagoa da edozeinekin hitz egitea eta, adibidez, bazkaltzeko geratzea. Irakasleak irekiagoak dira, eta, gainera, ohituta daude nazioarteko ikasleekin egotera. Ez dute aurreiritzirik. Jendetasun onekoak dira.

J.A.: Baina hori institutuaren arabera dela uste dut. Adibidez,

nirea oso handia zen, eta jendea oso ohituta zegoen atzerriko jendearekin egotera. Baina ezagutzen dut ikastetxe txikiagotan egon den jendea, eta horietan harrera desberdina izaten da.

M.A.: Nik ez dut inolako arazorik izan. Hara iristean aste eta erdi izan nuen libre, moldatzeko, eta entrenamenduak izan nituenez, ikasturtea hasterako jende asko ezagutzen nuen. Ikastetxearen bidez egin dut kirola: igeriketa eta korrika.

**Kultura anitzeko herrialde bat ezagutzeko parada izan duzue. Nolako izan da esperientzia?**

M.A.: Ezagutzen ez nituen kultura ugari topatu ditut. Hilabetean behin kultur topaketa bat egiten zuten, han bizi ziren pertsona askorekin, eta beren janariak ekartzen zituzten. Oso polita izan zen.

N.L.: Nire institutuan Urteberri Txinatarra ospatzeko afaria egin zuten, oso interesgarria izan zen.

J.A.: Hango jende askok leku askotako familia dauka. Nik Vietnamgo Mong etniaren ospakizunak ikusi nituen. Azkenean, AEBak hainbat kulturaz osatutako komunitatea dira.

M.A.: Ni baserri batean bizi nintzen, eta bizilagunak amishak ziren. Harrituta utzi ninduten.

**Hango egunerokotasuna hemen goarekin alderatuta desberdina da?**

N.L.: Bai. Jatorduetan nabaritzen da adibidez. 17:00etan afaltzen dute, eta otordu oso garrantzitsua

**"ETXEKOAK ERE POZIK DAUDE, BADAHITE NIRETAKO OSO AUKERA ONA DELA"**

da. Janari asko izaten da. Oso arraroa egin zitzaidan hasieran. J.A.: Nik garraioan nabaritu nuen alde. Han, edozertarako hartzen dute autoa. Oinez ezin zaitezke inora joan, distantziak oso handiak direlako.

N.L.: Ni hiri batean egon naiz, eta beti autobusean ibili behar da. Toki batzuetan espaloirik ere ez dago. Arraroa da.

**Nolako zen egun arrunt bat han?**

N.L.: Institutuan 14:00ak arte egoten nintzen, gero etxeko lanak egiten nituen, ondoren afaria prestatu eta solasean aritzen ginen, eta telebista ikusi ostean, 20:30ean ohera joaten ziren.

J.A.: Autobus hori tipikoan joaten nintzen ikastetxera, eta handik atera ondoren musikal bat egiteko entseguetara joaten nintzen 20:00ak arte. Handik etxera joaten nintzen.

M.A.: Nik klaseen ondoren entrenamenduak izaten nituen, 17:30ak arte. Gero etxeko lanak egiten nituen, eta afaldu ostean buelta bat ematen nuen gurasoekin. Neguan, asteburu osoa eskiatzera joaten ginen.

**AEBak. Telebistaz ikusten dena betetzen al da?**

N.L.: Gauza askotan, goitik behera betetzen da. Adibidez, asko gustatzen zaizkie McDonalds eta halakoak.

J.A.: Estatuen artean kultura eta pentsamendu diferentzia handia dago. Baina gauza batzuk badituzte komunean.

M.A.: Ikastetxe batetik bestera ere badaude aldeak. Hango eskola handian pentsamendu nahiko irekia zuten. Toleranteagoak ziren. Baina nire ikastetxean, gehienak oso itxiak ziren. Trumpe eta armen aldeko jende asko zegoen. Armen harira, nire familiakoek armak zituzten etxean, eta ehizatzaera eraman ninduten.

**Zein izan da, zuen uste, urtebeteko abentura honen alderik onena?**

M.A.: Egindako harremanak, hara itzultzeko aukera izatea, ikasi dudak guztia, eta kirol mailan egindakoa ere bai.

J.A.: Izan dudak hazkundeak. Niri buruzko gauzak ikasi ditut, hainbat egoera bizi eta gero. Oso esperientzia aberasgarria izan da. Ahaztezina.

N.L.: Nik ere hobeki ezagutu dut nire burua. Orain arazo bat baldin badut, badakit egoera horretatik nola atera. Gainera, ederra da Kanadan etxe bat dudala jakitea.

Osorik: [www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)



ASTEKOA

RAF ATXURI

## Uda hondarretan

Maleta eta armairu egunak ditugu hauek. Maletak etsiturik ganbarako txoko batera desgogara itzultzen dira, agian luzaz, eta bidaiako oroitzapen-lekuko mutu bihurtzen. Armairuetan lan handiagoxe dukegu zeren gaur hozkirri, bihar berogalda, etzi ekaitz, etzidamu hotz ibil gaitezke eguraldiak hala behartuta armairuan araka eta bila, neguko jantziak non dauden ere ongi gogoan harturik.

Eguzkiaren hegada apalduz badao ere, oraindik karrikak astintzeko gogoz daude herritarrak eta udari azken zukua kentzeko aste egoki eta bihurriak dira, Altsasuko festak edo Donostiako zinemaldia barne, San Migelak azkenburu izaki.

Jardunurtea gure zain dabilkigu, haurrak eta gazteak eskolara eta helduak euren errutinara, arruntkeria goxo, mikatz edo gazi-gozora. Batzuek abaro eta babes hartuko dute bertan eta beste zenbaitek, ordea, arantza eta aldapa latz.

Jakina, uztaile eta abuztuko elkarren berri emateko garaia duzu, irakurle. Azken Guaixe-a abuztuaren 3an ateratu zen eta barnean zekarren udako agenda, Saizarbitoriaren liburu bat

## ORAINDIK KARRIKAK ASTINTZEKO ETA UDARI AZKEN ZUKUA KENTZEKO GOGOZ DAUDE HERRITARRAK

bezain mardula bera. Bada, hainbat ordu behar izan nituen hura guztia aletzeko eta konturatzeko Sakanan agorrilean egin daitezkeen gauzetaz. Agendako goiburuak honelaxe zioen: ERAMAN ZUREKIN UDAKO AGENDA, garbi utzia

itsasoaz gandi ere udan non gozatua badela, eta Burunda-Aranatz-Arakil honetan "festak bai, besterik ere bai" leloak tinko dirauela, alegia herrietako festaburuez gain erromeriak, Oktober Fest, zirko tailerra, indusketa, ibilbideak, Euskaraldiaren eguna, Artzai zein Ospa egunak eta beste hainbat zerikusi eta zeregin izan direla. Sakandar uda, beraz, mardul eta jardunez bete. Udazkena ere ez omen dator batere mehe.

Irail eta itzulera on.

**GUTUNAK:** Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoko: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

## HARA ZER DIEN

### Elkartuta

#### SASOIA JUBILATUEN ELKARTEA

Urteetan aurrera egiten ari garenok arrakasta handiko programa ezagutu genuen bere garaian Estatuko Telebistan: La Unión hace la fuerza. Indarrak batzeak dakartzan abantaila eta ondorioak oso ongi egiaztatzen zituen programa arrakastatsua zen. Gaur egun, gizarte lehiakor honetan, premiazkoagoa egiten zaigu indar metaketa hau. Bizi-beharrak inposatzen dizkigun zailtasun eta erronkak, elkartuta, nekez gaindituko ditugu; inola ere ez bananduta.

Batasunean oinarritzen da, gaur egun, jubilatuek daramagun borroka eta batasunak erabakiko du gure

aldarrikapenen lorpena. Sakanako jubilatuek ere jabetu gara dinamika honetaz eta hor jarraitzen dugu, xumeki, gure astelehenetako kontzentrazioekin, elkarren arrimuan eta, uda garaiko eragozpen guztiak gaindituz, 50-70 bitarteko jubilatuek kopurua elkartzen gara eta jubilatuekin zer ikusia duen informazioa zabaldu eta banatzen dugu. Plataforma 22f, Pentsionistak Martxan (PM) eta Sasoiak gara elkarlanerako bateratu garenak; arazo berberak, helburu berberak ditugunez, borroka positiboa izatekotan, bat egin beharra daukagu.

Hauek dira, behin eta berriz eta etsipenean erori gabe, exijitzen ditugun helburuak: 1.080 euroko pentsio minimoa; 2011 eta 2013ko pentsioen erreforma eta lan erreforma

indargabetzea; eros-ahalmena berreskuratzea; Kontsumoko Prezioen Indizearekin (KPI) automatikoki handitzea pentsioen balioa; gizon-emakumeen artean dauden aldeak ezabatzea; neurri eraginkorrak hartzea; eta aldarrikapen, exigentzia hauek denak berma ditzakeen Pentsioen Sistema Publikoa blindatzea.

Hurrengo erronka nagusia urriaren 1ean, Adinekoen Nazioarteko Egunean, Euskal Herriko kaleak adineko jendez betetzea izango da. Eman dizkiguten ogi apurrekin ez gaude ados eta uda garaian erdizka mantendu dugun erantzuna berrindartu eta dena emateko erabakia hartuta dago. Adi egon Sakanako Plataforma 22f, PM eta Sasoiak helaraziko dizkizueten mezuei.

## Heriotza-oharrak

### Despeditu berri duzun hurbileko pertsona horren bizitzaren iruzkina argitaratzeko aukera ematen dizu Guaixek.

#### Heriotza-oharra argitaratzeko baldintzak

Testuak gehienez 1.900 karaktere izan behar ditu, hutsuneak barne. Bat eta bakarra onartuko da, ez baitira kapituluak onartuko. Idatzi guztiak egilearen izen-abizenekin argitaratuko dira. Testuak euskaraz idatziak bidali behar dira. Heriotzaren eta testu bidalketaren artean gutxienez aste bateko tartea egon behar du. Espazio antolaketa dela-eta GUAIXEK eskubidea du jasotako testuaren argitalpena hurrengo astera atzeratzeko. Hala balitz idatzia bidali duenari jakinaraziko zaio. Heriotza-oharra baldintzen duenak testuarekin batera honakoak bidali behar ditu: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Idatziak helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

# guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

**Koordinatzailea:**  
Goizeder Anton Iturralde  
fundazioa@guaixe.eus

**Diseinu zerbitzua:**  
GK, Olatz Aldasoro Martinez de Ilardua  
gk@gkomunikazioa.eus

**Administrazioa:**  
Gema Lakuntza Lopez  
admin@guaixe.eus

**Kolaboratzaileak:**  
Eñaut Agirrebengoa Apaolaza  
**Zuzentzailea:**  
Idoia Artieda Larrazza

**Lege gordailua:** NA-633/1995  
**Tirada:** 3.200

LAGUNTZAILEAK

# Mank

s a k a n a

## BAZKIDEAK



**Erredakzio burua:**  
Alfredo Alvaro Igoa  
guaixe@guaixe.eus

**Erredakzioa:**  
Maider Betelu Ganboa  
kirolak@guaixe.eus  
eta Erkuden Ruiz Barroso  
kultura@guaixe.eus

**Maketatzailea:**  
Lune Trecet Obeso  
maketazioa@guaixe.eus

**Publizitatea:**  
Maria Saez de Albeniz Bregaña  
publizitatea@guaixe.eus  
eta Eneida Carreño Mundiñano  
publi@guaixe.eus

**ARGITARATZAILEA:**  
Guaixe Fundazioa.  
Foru plaza 23-1.  
31800 Altsasu  
948 564 275  
948 562 107 (Faxa)  
618 882 675



**Nafarroako Gobernua**  
**Gobierno de Navarra**



Denak gerturatzean gurasoek astero 5.600 km egiteari utziko diote.

## Altsasuko presoak txandaka euskal herriratzen ari dira

3 Zaballako kartzelan daude, beste bat Iruñekoan, bi bidean eta bakarria dago Madrilen preso

### ALTSASU

"Urtebete eta 9 hilabeteren ondoren, albiste on bat dugu". Altsasuko Gurasoek hala hasi zuten agorriaren 17ko kontraziotzari hitzalditxoak; izan ere, preso dauden auzipetuak bina Euskal Herriko espetxeetara gerturatu dituzte.

Altsasuko auziagatik preso dauden zazpi espetxeratuak Iruñeko edo Zaballako kartzelara lekualdatzeko eskatu zuten. Agorriaren 24ean hurbildu zituzten Jon Ander eta Julen (Soto del Realdik Zaballara). Joan den ostiral eguerdian Aratz (Soto del Realdik Zaballara) eta Adur (Aranjuezdik Iruñera) hurbildu zituzten. Azken horrek senideei jakinarazi zenez, eskuburdinak jantzita eta beste preso batekin batera espazio murrizt batean sartuta lekualdatu zuten. Iñaki eta Oihan ostiralerako ekartzea espero

dute, Iruñera eta Zaballara hurrenez hurren. Auzipetuetako zazpi presoetatik Jokin da Madrilgo espetxe batean gelditzen den bakarria (Estremeratik Iruñera lekualdatuko lukete).

Altsasuko Gurasoek azaldu zuten, "urtebete eta 9 hilabeteren ondoren aurreneko albiste ona da lekualdaketa. Nahiz eta guk Altsasukoak aske aldarrikatzen segituko dugun". Horregatik, borrokan segituko dute.

Adurrek, Jokinek eta Oihanek 663 egun egin dituzte preso gaur. Garagarrilean utzi zioten FIES izateari, egotzitako delituagatik jarraipen bereziko preso izateari. Aratz, Iñaki, Jon Ander eta Julen Soto del Realgo espetxean daude garilaren 5ean atxilotu zituztenetik. Gaur 95 egun egin dituzte preso. 2016ko udazkenean beste 37 egun egon ziren preso. Haiak bisitatzeko 39.700 km egin dituzte, 90.000 euroko kostua.

Irailean 012 telefonora hots eginez informazioa emanen dute, bestela [www.euskaraikasi.nafarroa.eus](http://www.euskaraikasi.nafarroa.eus) web orrian. MANK

## Euskaltegi garaian, "eman like euskarari"

Nafarroako Gobernuak eta Sakanako Mankomunitateak helduak euskalduntzera animatu eta euskaltegian izena ematera gonbidatu dituzte. Ibarreko erakundeak diru-laguntzak ematen ditu. Azken urtean matrikulazioa % 7,5 handitu zen

### SAKANA

Euskaltegiek ateak ireki dituzte eta, dagoeneko, posible da haietan euskara ikasteko izena ematea. Horri bultzada emateko "Eman Like Euskarari" kanpaina jarri dute abian Nafarroako Gobernuak, 35 toki erakunde, Sakanako Mankomunitatea barne, eta euskaltegi publikoek zein gizarte ekimenekoek. Bigarren urtea da batera ari direla.

Nafarroako helduak euskara ikastera edo beren ikaskuntza-prozesuarekin jarraitzera animatu nahi dituzte. Horretarako, bi ezaugarri nagusi kontuan hartuz: hizkuntzari esker, euskal kulturaz eta giza eta lan harremanez gozatzeko dauden auke-

rak eta, bestetik, bai euskaltegiek eta bai euskal hiztun eremuek eskaintzen duten laguntza edozein ikasle bere ikasketak arrakastaz buka ditzan.

### Esandakoak


Kanpainaren aurkezpenean Euskarabideako zuzendari Mikel Arregik esan zuenez, "Nafarroako gizarteak errekonozituta du gure hizkuntza, euskara, ezagutzeko eskubidea". Ziurtatu zuen Euskarabideak "Nafarroa guztian eskubide hori bermatzeko beharrezkoak diren neurri guztiak" hartzen dituela. Arregik nabarmendu zuenez, "euskarak gazteei etorkizunerako bide berriak zabaltzen dizkie, bai gizartera-

tzerakoan, bai kulturaz gozatzeko, bai integratzeko".

Tokiko erakundearen izenean Garesko alkate Oihan Mendok euskara ikasterakoan gizarteak erakusten duen ahalegin pertsonala zein ilusioa nabarmendu zituen. Bestetik, toki erakundeek diru-laguntzek "euskaltegietan euskara ikasi nahi duten ikasleek matrikula eskuragarriagoa" egiten duela esan zuen. Azkenik, Barañaingo Sahats-Ika euskararen irakaskuntzarako zentroko zuzendari Ascen Argandoña Martinezek gizarte ekimeneko zentroen lana aipatu du, "erraztu egin behar zaio bidea nafar guztion hizkuntza ikasi nahi duen helduari".

## Esataria: Alfredo Gaurko gaiak:

- Sexu erasoaren kontrako Altsasuko festetako protokolo berrituaren aurkezpena
- Otsaportillon 1936ko estatu kolpearen ondoren eraildakoei omenaldia
- AEBetara eta Kanadara joandako ikasleek lekukotzak



Ostiralero 9:30ean  
**SAIOA**

Errepikapenak: 14:00 - 19:00

Asteleheneetik ostegunera  
**Metropoli forala**  
9:00etatik 11:00etara

107.3 FM  
**beleixe**  
guaixe.eus-en ON LINE

# Amnesiaren kontra eta egiaren alde

1936ko estatu kolpearen ondoren eraildako sakandar guztiak gogoan hartzeko ekitaldia egin zen atzo. Otsaportilloko ekitaldian "iragana eta oraina bereiztera kondenatzen gaituen amnesia" salatu zuten

SAKANA

Sakanako Udalek ekitaldia elkarrekin antolatzea erabaki zuten, eta txandakako antolakuntza txandan Irañetako eta Uharte Arakilgo Udalen ardura izan zen Urbasako lezearen inguruan omenaldia antolatzea. Irañetako alkate Juan Anjel Beraza Gastesik esan zuenez igandekoa, "egia esateko eskatzeko eta oraindik gure lurralde honetan inposatzen diguten amnesia salatzeko; nahiz eta bertan 3.000 pertsona baino gehiago fusilatuak izan ziren".

Juan Sainz Beteluk Uharte Arakilgo alkateak amnesia salatu zuen: "amnesia horrek gertakariak banan-banan aitortzera kondenatzen gaitu; bi bandoak parekatuz kondenatzen gaitu; gauzak hargatik gertatzen direla sinestaz kondenatzen gaitu; finean, iragana eta oraina bereiztera kondenatzen gaitu".

Uharte Arakilgo 80 urte memoria galtzen taldeko Txomin Uhartek nabarmendu zuenez, "ezkututzen digute oraingo gertakariak erabat lotuta daudela 1936ko estatu kolpearen ondoren ezarritako erregimen politikoa-ri eta ekonomikoari; bere barnean indarkeriaren DNA duen erregimenari, indarkeriaz ezarri eta indarkeriaz zigitatu zuten haren jarraipena duela 40 urte, batzuek oraindik eredu garrantzarako jotzen duten trantsizioaren bidez".

Erregimenaren oinordekoak "zauria berriro zabaltzea komeni ez dela esanez, eragindako sufrimendua ahanztarazten saiatzen" direla gaztigatu zuten Sainzek. Erregimenaren itzalean aritutako ekonomia eliteak, eliza, epaileak eta polizia egiturak salatu zituen. Azken horiek 1977ko Amnistia Legeak "blindatu" zituela nabarmendu zuen. Espainiako estatuak gizateriaren delituen kontrako alorrean nazioarteko hitzarmenak urratzen dituela gaineratu zuen Uharte



Omenaldian bildutakoak dantzarietara begira.

## HISTORIA-MEMORIA "GERTAKARIAK EZAGUTZEKO ETA AITORTZA EGITEKO" ALDARRIKATU ZUTEN

Arakilgo memoria taldeko kideak.

Historia-memoriaren aldarrikapena egin zuten Otsaportilloko lezean. Uhartek esan zuenez, "helburu bikoitzarekin: gertakariak ezagutzeko eta aitortzea. Memoria aitortzen gisa ulertzen dugu; errepresaliatutako familien eskubideak eta eskaerak aitortzen dituen. Era berean, memoriak gertatutakoa ezagutzeko balio behar duela uste dugu. Izan ere, ezagutza horrek baliabideak ematen dizkigu 36ko erregimenari erabat lotuta dagoen 78ko erregimenetik behin behingoz askatzeko". Gaineratu zuenez, "historia-memoriaren bidez jakinen dugu zer gertatu zen iraganean, oraina ulertu eta etorkizunari osotasun osoz heldu ahal izanen diogu azkenean.

### Ekitaldiaz

Haien ondoren, Etxarri Aranazko alkate Eneka Maiz Ulaiarrek hartu zuen hitza eta Otsaportillon bildutako bostehun bat pertsoneri jakinarazi zien goiz hartan bertan 1936an fusilatutako pertsona baten hezurdura opatu zutela Lizarrustiko mendatean (ikus aldameneko albistea).

Hizlariez aparte Castillo Suarezrek Irribarre egiteko olerkia errezitatu zuen. Horretan Iker Uribe-Etxeberria eta Ismael Martiarena txalapartarien eta Luis Kintana baxu-jolearen laguntza izan zuen. Haien doinua Iraia Gartziak eta Amaia Leozek dantzatu zuten. Guztia Ainhoa Juanizek koordinatu zuen. Aurreskua ere dantzatu zitzaizen Sakanan eraildako guztiei eta, despeditzeko, Jose Ramon Andak egindako eskulturaren lore eskaintza egin zuten bildutakoek. Ekitaldiaren antolaketa Nafarroako Gobernuak dirulaguntza eman zuen.

Aranzadi zientzia elkarteko kideak bitan jaitzi ziren Otsaportilloko lezean. Horren ondorioz 11 pertsonaren hezurdurak jaso zituzten eta haietatik 7 identifikatu dituzte.



Senideak, argazkia eskutan dutela, hezurduraren ondoan. MANU GOMEZ

## 1936an eraildako baten hezurdura atera dute Lizarrustin

Baliteke Olaberriako 17 urteko gazte baten hezurdura izatea. Familia eta agintariak lekuko izan ziren

ETXARRI ARANATZ

Aranzadi zientzia elkarteko kideek, Paco Etxeberria antropologo eta forentsea buru zutela, gizon baten hezurdura atera zuten igande goizean. Lizarrustin izan zen, Quifosa inguruan. Aranzadikoak lanean hasi eta lehenik bi Oviedo fusilen 3 bala-kaskilloak opatu zituzten. Errematatzeke erabili zuten beste bala baten kaskilloa ere agertu zen. Ondoren, hezurdura. Koilara bat ere agertu zen.

DNA probak egin eta egiaztatu faltan, lur azpitik ateratakoa baliteke Marcelo Lasa Ceberio Olaberriako 17 urteko gaztearen hezurdura izatea. Abertzalea zen eta 1936ko agorriaren 25ean erail zuten. Basoan egon denez hezurdura oso hondatua dago, hantekako hezurak kontserbatu dira batez ere. DNA laginak atera eta Nafarroako Gobernuaren bankuan gordeko dira, beharrezko identifikazioak egiteko.

Hezurdura opatzeko Francisco Lakuntza Larraza etxarriarraren lekukotasuna ezinbestekoa izan da. 1936an Lizarrustin bizi zen eta 6 urte zituela gorpua arrastaka nola zeramaten ikusi zuen. Antza, aitarekin eta osabarekin arrantzan zegoela, tiro hotsak entzun eta kaxko batera igo eta handik bi gizonetako beste bat hilda zutela ikusi zuen. Aldegiteko eta ez begiratzeko esan omen zioten. Pago baten erreferentzia eman zuen eta handik ez oso urrun agertu zen hezurdura. Beraren zehaztasunak eta familiak eta Aranzadi elkar-

teak jasotako datuak oinarri hartuta, heriotzaren leku zehatza aurkitu ahal izan da.

### Esandakoak

Eneka Maiz Ulaiar alkateak familiakoei "izandako inplikazioetatik eta kemenetatik" eskerrak eman zizkien, haiek izan baitira indusketa sustatu dutenak. Aranzadi elkarteko kideei esker ona azaldu zien, "egindako lan profesionalagatik". Maizek Nafarroako Gobernuarendako ere esker oneko hitzak izan zituen, exhumazio hau bere gain hartu zuelako. Etxarri Aranazko alkateak gaineratu zuen, herriko Sufrimenduaren Mapan beste urrats bat eman zela gorpuzkiaren aurkikuntzarekin. "Etorkizuna bakean eta askatasunean eraikitzeke, beharrezkoa da iraganeko korapiloak askatzea, eta memoria eta errepazioa bermatzea" gaineratu zuen.

Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilaria Ana Ollo eta Josemi Gaston Nafarroako Memoriaren Institutuko burua Lizarrustin izan ziren. Ollok herritarren lekukotzen garrantzia azpimarratu zuen. Gogorazti zuten, "memoria eta giza eskubideen politika publikoen lehentasunezko konpromisoetako bat da". 75 gorpuzki berreskuratu eta 21 pertsona identifikatu dira eta familiari bueltatu zaizkie. Identifikazio gehiago egiteko desagertuen senideek euren DNA laginak uztearen garrantzia azpimarratu zuten.

# Biurdana institutuan tokia egiten ari dira

Iruñeko Sanduzelai auzoan Iparralde institutu berria eraikitzearekin DBHko ikasle guztiak ikastetxean daude, Batxilergokoak kanpoan, Donibane ikastetxean. Bitartean, Atakondoa eskolako handitzeko lanak aurrera doaz, abendurako bukatuko dituzte

ARAKIL / IRURTZUN

Irurtzango Atakondoa eskola publikoan DBH 2. mailara arteko ikasketak egiten dituzte ikasleek. Derrigorrezko ikasketekin segitzeko ikasleek Iruñera joan behar dute, euskaraz egin nahi dutenen kasuan Biurdana institutura. Guztira 41 ikasle daude ikasturte honetan, gaur hasiko dutenak kurtsua. Aurreko kurtsuetan Biurdanan makina bat arazo izan dituzte espazioarekin. Ikastetxeak 250 ikasle-erendako tokia du eta 600dik gora hartu izan ditu. Horrek makina bat egokitzapen egitea eta ikasle batzuk Donibane institutuan egotea eragin zuen.

Nafarroako Gobernuak masifikazio arazoari konponbidea emateko Iruñeko Sanduzelai auzoan DBHko Iparralde institutua eraiki du. Biurdanako zuzendari Javier Perezek azaldu digunez, hainbat eskoletako ikasleak hara joan dira DBHko 1. maila egitera eta DBHko 2. maila egin behar zutenei batera edo bestera joateko aukera eman zitzaie eta "asko Iparraldera joan dira, dexenteko jaitziera izan da". Ondorioz, Biurdana institutuak DBHko ikasle guztiendako espazioa du. Baina Batxilergoko ikasleak kanpoan daude, Donibane institutuan.



Iparralde institutua. Abendurako Atakondoa handitzea bukatuko da. NAFARROAKO GOBER.

Biurdanako zuzendariak azaldu digunez, espazioaren arazoa konpontzea "urtez urte matrikulazioaren arabera egingen da. Heldu den urtean 3. mailako matrikulazioa jaitziko da. DBHn taldeak galduko ditugu. Baina Iparralde institutuan ez da Batxilergo emanen. Beraz, matrikulazioaren garapena ikusi beharko da. Ikusi beharko da ikasleek Batxilergoa, Lanbide Heziketa edo Artebatxilergoa aukeratzen duten". Hiruzpalau urtetako prozesua aurreikusten du.

## Eskaera

Atakondoa ikastetzeko komunitate osoaren aspaldiko eskaera da DBH osoa Irurtzunen izatea. Ikastetxea handitzea edo berria egitea eskatu dute. Lur saila ere prest du Irurtzango Udalak. Eta gaineratu dute ikasleak Irurtzunen 16 urtera arte eskolatzeak kuadrillak sendotzea ekarriko lukeela eta, ondorioz, eskualdeko gazteek harremanak bertan indartuko lituzkete, ondorioz bertako harreman sozial, ekonomiko eta kulturalak sendotuz.

## Herri bazkaria Irurtzun-Arakilgo ganadu azokan

Irailaren 16an, igandearekin, VI. Irurtzango eta Arakilgo ganadu azoka izanen da. Egitarauak herri-bazkaria berreskuratu du, bertako jakiekin egingen dena. Barazkigunean izanen da bazkaria, 15:00etan. Txartelak nahi dituztenak Arakilgo edo Irurtzango udaletxeetatik osteguna baino lehen pasa beharko da. 15 eurotan daude salgai.

## Mendukilo, santutegia eta izarrak. Hirurak aldi berean gozatzera

Plazaola turismo partzuergoak eta Sakanako Garapen Agentziak bigarren urtez *Lurraren bihotzetik izarretara* bisita gidatua antolatu du hilaren 15erako. Eskaintzak Mendukiloko lezera (17:30ean) eta Aralarko santutegira (19:15ean) bisita gidatuak hartzen ditu. Ondoren tokiko produktuen dastatzea izanen da. Eskaintza borobiltzeko izarrak

behatzeko aukera izanen da (21:15ean).

Antolatzaileek jakinarazi dute plaza kopuru mugatuak direla. Izen ematea Etxarriko Goazen Bidaiek agentzian egin behar da (650 023 698 edo goazenbidaiek@gmail.com), 13ra arte. Pertsonako 10 euro ordaindu behar dira. Izena ematean bisita zein hizkuntzatan egin nahi den esan behar da, gaztelania eta euskara taldeak izanen baitira. Autobusa 17:00etan abiatuko da Lekunberritik.



Olatzagutiko ikuspegia.

## Parte-hartze aurrekontuetan proposamenak egiteko garaia da

Udalaren 20.000 euro zertara bideratu erabakitzeko proposamenak hilaren 14ra arte aurkez daitezke

OLATZAGUTIA

Estreinako aldia da Olatzagutiako Udalak parte-hartze aurrekontuen egitasmoa martxan jarri duela. Haren bidez, olaztiarrek, elkarteek edo kolektiboek euren proposamenak egin ditzakete, nahi bezain beste. Beti ere, udal eskumeneko arlotarako izan behar dira proposatzen diren lanak, inbertsioak edo dena delakoak. Haiek jaso eta aztertu ondoren, herritarren gehiengoaren oniritziak aukeratu da udalak 20.000 euroak zertara bideratuko dituen.

Mikel Azkargorta Boal alkateak esan duenez, "herritarren partaidetza elementu aberasgarria da, bizilagunak udalaren parte izan daitezten bideratzen duelako". Azkargortak gaineratu duenez, "interesgarriena proiektuak aurkeztea da, prozesuan aukeratuak izan ez arren, herritarren eskaera horiei buruzko ezagutza ematen digulako eta beste diru partida batzuekin edota etorkizuneko parte-hartze aurrekontuekin eskari horiei irtenbidea ematen saiatuko gara".

## Epeak

Parte-hartze aurrekontuen berri emanez, udalak olaztiarrei gutuna eta proposamenak aurkezteko orri ereduak bidali zien. Proposamenak egiteko epea astelehenean zabaldu zen eta irailaren 14ra arte zabalik egonen da. Proposamenak udaletxean aurkeztu beharko dira, bulego ordutegian, edo, bestela, udaletzeko postontzian utzi. Udalak

bidalitako inprimakiak betez aurkeztu beharko dira proposamenak. Orri horiek [www.olazti.eus](http://www.olazti.eus) web orrian eta udaletxean eskuragarri daude. Olatzagutiko Udalak irailaren 17tik 28ra proposamenak jaso, aztertu eta balioztatuko ditu.

Azkenik, lastailaren 1etik 7ra proposamenei botoa emateko epea zabalduko da. Lastailaren 1etik 4ra [www.olazti.eus](http://www.olazti.eus) web orriaren edo 012 telefonora hots eginez botoa emateko aukera izanen da. Eta lastailaren 6an eta 7an kultur etxean izanen diren hautetsontzietan. Botoa herrian erroldatuta dauden 16 urtetik gorako pertsona guztiek emateko aukera izanen dute. Pertsona bakoitzak gehienez proposamen baten alde egin ahal izanen du.

## Lanak ludotekan

Akelarre ludoteka eta gaztetxokoa egokitze lanak joan den astean hasi ziren eta hilarekin batera despedituko dira. Komunak egokituko dira, sabaia jaitzi (energia eraginkortasuna hobetzeko, berogailuan aurrezteko eta oihartzuna kentzeko) eta ateak gurpildun aulkietarako egokituko dira. Igogailua jarriko da ere. Baina hura jartzeko lanak aurrerago hasiko dira eta ez diote ludotekaren jardunari eraginen. Lanek 77.863,50 euroko balioa dute, BEZ barne. Udalak 49.046,52 euroko diru-laguntza jasoko du lan horiek egiteko. Izen ematea irailaren 19tik 28ra arte egonen da zabalik.

# Errepresioaren kontra antolatzeke deia

Ospa-egunean, festa giroan, errepresio-indarrak alde egiteko aldarrikapena zabaldu zuten. "Mainamikiriren ilobak gara gu... eta erratzak prest ditugu! #Alde Hemendik! leloa zuen aurtengo edizioak

## ALTSASU

Euskal Herrian diren polizia indar guztiei zuzendutako mezua zabaldu zuen Ospa mugimenduak larunbatean: "ez zaituztegu nahi, ez zaituztegu behar". Aldi berean, Ospako kideek jakiarazi zuten "hodei guztien azpitik, errepresio ororen gainera aurrera eginen dutela. Gaineratu zuten, "aurrerapauso bat eman behar dugu, errepresioaren inguruan gogoeta sakonak egiteko". Errepresioari "elkarrekin aurre egin" beharra nabarmendu zuten, "gure indarra kolektiboan eta elkartasunean baitago". Antolatzeke beharra azpimarratu zuten, "imajinatu, ze nolako beldurra sortuko zenuketen boterean daudenen artean!"

Aldi berean, aitortu zuten, "errepresioaren kontra jarduten dugunondako ez baitira garai onenak izan. Errepresio maila gogortu digute estatuek eta beraien indar errepresiboek". Ziurtatu zuten, "sistema esplotatzaile honek dakartzan zapalkuntzaren aurka altxatzeagatik erreprimitzen gaituzte". Ospako kideen iritziz, "estatuak egungo sistema kapitalista bermatzeko aparatuek direnez, errepresioa funtsezko tresna dute. Ezinezkoa baita injustizia etengabe erreproduzitzen duen



Ospa eguneko kalejiran jende askok hartu zuen parte.

sistema errepresiorik gabe irautea". Horregatik, "ezinezkoa izanen dugu errepresioarekin bukatu sistema berarekin amaitzeko bidea egiten hasten ez bagara". Horretan ari direnak elkar babestera deitu zuten.

Larunbatean ziurtatu zuten, "gure proiektu komunal eta kolektiboek ez dute lekurik kapitalismoan, ondasun pribatua, sistema beraren oinarria, kolokan jartzen baitute". Estatuak "izaera errepresiboa" erakustearrekin batera, "geroz eta bide estuagoa markatzen" ari direla

nabarmendu zuten, "horren aurrean gure buruak babestea ezinbestekoa dugu. Alde Hemendik aldarrikatzea behar-beharrezkoa da". Guardia Civilak alde egin behar duela azpimarratu zuten. Eta salatu zuten garilaz geroztik "Foruzaingoa Altsasuko kaleetan patruilatzen ibili da normaltasun osoz. Indar errepresiboaren normalizazioaren kontra ekin behar dugu ere! Euskal Herri Langilearen etsaiak direlako!"

Azkenik, Ospako kideek ziurtatu zuten, "erreprimitzen gaituztenekin bizikidetzatza faltsu bat inposatu nahi diguten arren, ez dutela lortuko! Justizia erreala baita elkarbizitzarako beharrezko baldintza eta sistema hau sufritzen dugunondako ez dago justiziarik".

## Jai giroan

Txararak animatutako Ospa Eguneke kalejiraren akaberan esandakoak dira aurrekoak. Goizetik animazioa izan zen Altsasun. Zumalakarregi plazan egindako bazkarian 400 bat pertsonak bat egin zuten. Kalejiran 3.000 bat izan ziren. Ordu txikiak arte luzatu zen ospakizuna.



Jendea Benta gaztetxearen sarreran mustutze egunean. UGA

## Benta, atzera ere, gaztetxea bihurtuta eta mustuta

Egindako lanak herritarrei erakusteko, gazte asanbladak ate irekien jardunaldia egin zuen agorrilaren 17an

## URDIAIN

Benta gaztetxean Urdiaingo Gazte Asanbladak (UGA) egindako lanak herritarrei erakusteko ateak zabaldu zituzten agorrilaren 17an. Hamaiketako eskaini zieten gerturatu ziren guztiei. Egindako lanez aparte, UGAk antolatutako ekintzekin ondutako bidea ikusteko aukera izan zuten bisitariak. Mustutzea borobiltzeko gazte-afaria eta parranda izan ziren.

Frontoi azpian, garai batean futbol zelaiko aldagelak zirenak izan ditu egoitza orain arte UGAk. Hari antroa deitzen zioten gazteek. Ezer baino gehiago zen, baina bilerak egiteko besterik ez zien balio. Gutxi gehiagorako, hitzaldiak eta bestelakoak antolatzeke balio ez zuelako. Udalarekin harremanetan jarri eta benta zen eraikinean espazio bat utzi zien gazteei 2017an: beheko solairua, bideberri aldera ematen duena. Solairu erdia baino gutxiago hartzen du.

UGAkoek joan den urtean espazioa nola banatu aztertu eta paretaren bat bota zuten. Baina lanik handienak uda honetan egin dituzte. 90eko hamarkada akaberan espazio berak gaztetxea hartu zuen, baina eraikinaren egoera txarra zenez utzi zuten. Orduko arrastoa gelditu zen, agertokia. Bukatu gabe badago ere, hura aprobetxatu dute. Horretaz aparte, egongela, barra, biltegia, sukalde txikia eta komuna dituzte. Azken bi horiek ur eta ur beltzen sareekin lotzeko kanpo laguntza beharko dute

gazteek. Azken horiek kenduta, gehiena prest dute UGAkoek.

Gaztetxea izanda hainbat asmo dituzte UGAkoek. Gainera, ibarreko gazte asanbladekin harremanetan daude. Elkarlan horretatik zerbait sortuko dela espero dute.

## Sakanako gazte egoitzak

9 gazte egoitza daude ibarrean. Haietatik 8 udal eraikinetan daude eta bakarra Elizarenean, Lakuntzako. Hona Sakanako gazte egoitzen zerrenda: Irurtzunen Larrazpi, Lakuntzako Biltoki (50 urte), Arbizuko Argi-bidea (50 urte), Etxarri Aranzako gaztetxea (11 urte), Iturmendiko Ximona gaztetxea (7 urte), Urdiaingo Benta gaztetxea, Altsasuko gaztetxea (aurten 28 urte), Olatzagutiko Maisuenea gaztetxea (23 urte) eta Ziordiko gaztetxea (25 urte baino gehiago).

**TXARTEL TX 20** urteurrena

**INPRIMATZE DIGITALA**  
KOPIA-DENDAKO ZERBITZUA  
NEURRI HANDIKO INPRIMATZEAK

[www.txartel.net](http://www.txartel.net)  
948 564 002  
[txartel@txartel.net](mailto:txartel@txartel.net)

**MARIASUN ERDOZIA ULMIAR**

**ARKITEKTURA**

Obra berri eta Zaharberritzeak

**EET**

Erakinek Ebaluatzeke Txostenak

[mariasunerdozia@gmail.com](mailto:mariasunerdozia@gmail.com) 665716857  
Zugareta Kalea 36-1 Esk - ETXARRIARANAZ

**GUAIXE**  
618 882 675



## Enplegu-bulego berrirako 680.000 euro

Lan handiena azaroa eta martxo artean egingen da eta garagarrilerako zabalduko ditu ateak

### SAKANA

Nafarroako Gobernuak Altsasun duen enplegu bulegoa alokatutako eraikin batean dago eta urtero 47.000 euro inguru pagatzen ditu horregatik. Foru administrazioak eraikin propioak izanik, bulegoa kamineroena izan zen eraikinetako batera aldatzea erabaki du. 679.541,72 euroko inbertsioa egingen du gobernuak (300.000 euro inguru aurten eta 385.000 euro 2019an).

Argyme Barricarte y San Romanek egin dute bulego berriaren proiektua. Beheko solairuak 183,35 m<sup>2</sup> izanen ditu: SEPEren dako gunea (22,3 m<sup>2</sup> eta beste 18 m<sup>2</sup> itxarote-eremurako), Nafar Lansareren gunea (37 m<sup>2</sup> bulegorako, eta 18 m<sup>2</sup> itxarote-eremurako). Gainera, komuna, atariak, erabilera anitzetarako gela bat, areto bat, bi zuzendaritza-bulego eta orientatzaile batendako beste bulego bat.

Lehenengo solairuak 188 m<sup>2</sup> inguru izanen ditu, eta gunea hauek: itxarote-eremua, bi bilera-gela, trebakuntza-gela bat, artxiboa eta biltegia, eta bi bulego. Bigarren solairua libre geratuko da, etorkizunean zabalduz egin behar badira. Wifi gunea izanen da izapideak online egiteko.

## Kontzeju-etxean hobekuntza lanak egitear

Leihoak aldatu, lehen solairua egokitu eta sarrera irisgarriago egiteko arranpa egingen da

### IHABAR

Kontzeju-etxearen ezaugarriak hobetzeko asmoz, Ihabarko Kontzejuak eraikinean hobekuntza lanak egitea erabaki du. Alde batetik, eraikinerako sartzeko eskailerak igo beharra daude, sarrera kaletik 95 cm-ra baitago. Arkitektura-oztopa kentzeko arranpa bat egingen da eta eskailera arranpara egokituko da.

Horrekin batera, kontzeju-etxearen ezaugarri termikoak hobetu nahi dira, berogailuan dirua aurreztu ahal izateko. Horretarako, fatxadako leihoak aldatuko dira.

Ihabarko Kontzejuak, gainera, lehen solairua erabilera anitzeko gela bihurtu nahi du. Horretarako, barruko paretak forratu egingen dira eta tartean isolatzailea jarri. Aldi berean, lehen solairuko eta ganbarako zoruak berritu eta isolatzailea jarriko da. Mugikortasun murriztua duten pertsonak hara igotzeko eskailera-igogailu bat jarriko dute.

Lanek 66.811,37 euroko aurrekontua dute eta udazkenean hasiko dira. Hiru bat hilabete beharko dituzte despeditzeko. Kontzejuak, Garalurren bidez, Europako Landa Garapenerako Programako diru-laguntza du.

# Autoenplegua sustatzeko ordenantza onartuta

Ekonomia jardueraren bat martxan jartzen duten langabetuei zuzendutako diru-laguntzak arautzen ditu. Udalak, bestalde, Isidoro Melero eta Ermita kaleetako lanen deialdia eta etxegabeen aterpea egiteko hitzarmena sinatzea onartu zituen

### ALTSASU

Altsasuko Udalak agorrileko bilkuran autoenplegua sustatzeko diru-laguntzen ordenantza hasiera batez onartu zuen. Langabezian dauden pertsonen zuzendutako diru-laguntza horiek joan zen urtean eman zituen estreinakoz Altsasuko Udalak. Deialdia zena, orain ordenantza edo araudi bihurtu da. Haren bidez udalak zerbitzuekin eta merkataritzarekin lotura duten lanpostuak sortu nahi ditu, "herrian gertuko zerbitzuak bermatzeko eta herritarrek bizikaltatea galdu ez dezaten". Izan ere, industrian bezala, sektore horietan ere arrastoa utzi baitzuten finantza-krisiak eragindako ekonomiaren beheraldiak.

Javier Olló Martínez alkateak azaldu digunez, "ekonomia-jarduera berri bat jartzen duten langabetuei sortzen zaizkien lehen gastuetan laguntzea du helburu ordenantzak". Honako baldintzak bete behar dira: enplegu bulegoan lan-eskatzaille gisa izena emanda egotea, udalarekiko zerga-betebeharretan egunean egotea. Laguntza jasotzeko Ekonomia Jardueren gaineko Zergan urte betez segituan izan behar du, bestela onuradunak laguntza bueltatu beharko du. Joan den urteko deialdian



Altsasuko Isidoro Melero kalea. ARTXIBOA

dozena bat eskaera jaso zituen eta 11 onartu ziren eta haien artean 3.900 euroko laguntza banatu zuen udalak.

### Isidoro Melero eta Ermita

Bi kale horietan sareak eta zoladura berritzeko egingen diren lanak emateko deialdia onartu zuen Altsasuko Udalak bilkura berean. Isidoro Melero kalean etxeak maila desberdinetan daude. Horren jakitun, udalak bando bidez jakinarazi du autoak bajeetan sartzeko espaloien eriza jaitsi nahi dutenek hala

eskatu beharko dutela. Beharpen horiek egiteko udala indarrean den ordenantza onartutako da. Han jasotakoa betetzen ez den kasuetan ez da behar-tzerik egingen.

Etxegabeen aterpea kamineroen etxeetako batean kokatzeko Nafarroako Gobernuarekin hitzarmena sinatzea adostu zuen udalak bilkura berean. Zortzi pertsonendako tokia izanen du. Udalak 50.000 euro jasoko ditu egokitzapen lanak egiteko. Haien aurrekontua, guztira, 156.044,04 eurokoa izanen da.

**BIL TOKI**  
TABERNA • JETETXEA

948 467 876 • Altsasu

**kaxeta**  
liburudenda / paperdenda

**bai**  
eskulari

**Testu liburuak**  
**Eskolarako materiala**  
948 460 477

Larrañeta 22, ETXARRI-ARANATZ

**ABC**  
**ZENBATZEN AKADEMIA**

- \* Irakasgai guztiak
- \* Matematika eta Fisika irakasgaietan espezializatua
- \* Banakako klaseak
- \* Talde murriztuak

Aldatz 1 | Arbizu  
650 296 449 / 653 955 084  
zenbatzen.akademia@gmail.com

12

**HIJOS DE GOIKOETXEA**  
**EDARI BANATZAILEA**

**Patxarana egiteko anisa**  
24° takoa  
28° takoa  
35° takoa  
**3 litroko botilak**

Geltoki auzoa 11 • Altsasu  
948 467 317 • 696 979 279 • hijosdegoikoetxea@yahoo.es



Higuero, Agirre, Perez, Lopez de Goikoetxea, Alonso eta Moran aurkezpenean.

## Luis Mari Lopez de Goikoetxearen txupinazoa

Goazen Altsasuk "herriaren zerbitzura bizia eskaini" duela nabarmendu du aurkezpenean

### ALTSASU

Legegintzaldiko azken festei hasiera ematea Goazen Altsasuri dagokio. Heldu den ostegun eguerdian etxajua zeinek piztuko zuen jakinarazteko taldeak prentsaurrekoa deitua zuen asteazken arratsalderako. Baina bezperan sare sozialaren bidez zabaldu zen eta asteazkena azoka eguna izanik Luis Mari Lopez de Goikoetxeak altsasuarren makina bat zorion agur jaso zituen. Frankismo ondorengo aurreneko legegintzaldian Gerardo del Olmo alkateak proposamen bera egin zuen. Lopez de Goikoetxeak berak gogorarazi duenez, orduan ezinezkoa izan zen, orain bai.

Goazen Altsasuko Virginia Alonso zinegotziak aitortu zuenez, "legegintzaldi eta urte gogorra izaten ari da. Ezezkotasun espiraletik atera eta altsasuar askoren positibotasuna eta eskuzabaltasuna nabarmendu nahi ditugu". Horren eredu gisa urte hasierako elurtea jarri zuen. Zenbait hedabidek herriaz zabaldu duten irudiaren aurrean Goazen Altsasukoek "positiboan

Altsasu garen pertsonak omen-du nahi ditugu, eskuzabaltasunez herria egin duten, egiten eta eraikitzen duten pertsonak". Alonsok esa zuenez, "gure kulturaren eraikuntzan, mantentzean eta zabalkundearen modu eskuzabalean lanean ari direnen ordezkari da Luis Mari Lopez de Goikoetxea".

Jose Luis Moran zinegotziak nabarmendu zuen Lopez de Goikoetxeak lau hamarkadaz zortzikoa irakasteaz arduratu dela. "Baina bestelako ohituren transmisioan ere aritu da: Errege Eguneko fara jotzea, zezensuzkoaren ardura, inauteriak, mendizaletasuna... eta ziur zerbait uzten dudala". Goazen Altsasuko zinegotziak Luis Mari Lopez de Goikoetxearen egitekoa nabarmendu zuen: "ohiturak eta kultura berreskuratzea komunitatea sortzea da, herria egitea, partaide izatearen eta kolektibitate sentimendua sustatzea, elkarbizitza plurala eta anitza indartzea; ezin baitugu ahaztu toki guztietako jendez osatutako herria garena, eta horrek handi egiten gaitu".

## Altsasuko hirigintza plan berrirako finantzazioa lotuta

Altsasuko hirigintza plan berria egiteko 245.000 euro bideratuko dira eta horietatik % 80 Nafarroako Gobernuak pagatuko ditu. Hori jasotzen duen hitzarmena sinatu zuten atzo Javier Ollo alkateak eta Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio kontseilari Isabel Elizaldek. Sinadura ekitaldian adierazi zuten, etorkizuneko

planaren helburu nagusietako bat da Altsasuren eragin inguruan herriaren zentraltasuna indartzea. Bestetik, Alde Zaharrean dagoen espazio libre, aparkaleku eta ekipamendu falta konpondu nahi du. Bestetik, herriaren hazkunde kudeaketa eredu jasangarria eta errealista sustatu nahi du eta indarrean dagoen plana gauzatzeko atzemandako eragozpenak zuzentzea. Mugikortasun eta trafikoko arazoak konponbidea eman nahi die ere.



Epaileek lan handia egin behar izan zuten gazta hobereana aukeratzeko.

## Artzain Eguna, atzera ere, arrakastatsua izan zen

Artzaintzari eskainitako egunean, azken urtean artzain hasi diren gazteak omendu zituzten

### UHARTE ARAKIL

Agorrileko azken igandean artzaintza goratu zuten Uharte Arakilen. Eta urtero moduan makina bat jende erakarri zuen hitzorduak. Aurten latxa ardiekin lanean hasi diren bederatzita artzain gazte omendu zituzten Artzain Egunean. Jesus Zelaia Saharrea, Joseba Alberro Etxandi, Agoitz Alzugarai Maia, Iñaki Vera Mutuberria, Xabier Sanjose Dominguez, Nerea Mendez Barber, Marina Collado Horcajada, Nerea Olazarán Juaniz eta Naiara Calderon Aiestaran. Azken hori ihabardarra da. Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio kontseilari Isabel Elizaldek aitortu zuen haien lana "gure kultura, paisaia eta ekonomia mantentzeko garrantzitsua" dela.

Urtero moduan, gazta enkan-teak erakarri zuen askoren arreta. Lekarozko Julen Arbu

ruaren gazta erdiagatik 4.550 euro pagatu zituen Leandro Gilek, Muga de Beloso hoteleko La Biblioteca jatetxeko sukaldari buruak. Gazta txapelketako 10 onenen artean hiru gazta sakandar sailkatu ziren. Hainbat lehiaketa jokatu ziren.

## 51. Artzain txakur lehiaketa

1. Jai, A. Alustizarena, 315.
2. Sua, A. Ganboarena, 301.
3. Aske, A. Alustizarena, 238.
4. Bizkor, J.M. Ixtillarrena, 183.
5. Arakil, J. Oteizarena, 97.
6. Argi, A. Uharterena, 72.
7. Ttipi, J.M. Istilarrena, 61.
8. Kati, J. Fernandezena, 58.

## 37. gazta txapelketa

Gazta	Gaztagilea	Herria
1. Infernuko gasna	SC Kortaria	Lekaroz
2. Loperenea	Marta Perez Loperena	Egozkue
3. Remiro	Ricardo Remiro	Eulate
4. Bengoetxea	Bengoetxea eta Lastiri	Urdazubi
5. Valle Las Amescoas	SC Perez Albeniz	Aranaratxe
6. Albi	Campion eta Ganboa	Arruazu
7. Beriain	Balda-Artola y otros	Unanu
8. Martiko	Juan Luis Pellejero	Gaintza
9. Antsonea	SAT Antsonea	Uztegi
10. Juananeko borda	Araña-Etaio	Arbizu

## Ezinbesteko liburu baten mende laurdena

Rafael Carasatorreren "Barranca-Burunda" liburua 1993ko irailaren 2an aurkeztu zuten

### SAKANA

Rafael Carasatorre Vidaurrek Barranca-Burunda liburua aurkeztu zuen duela 25 urte, 1993ko irailaren 2an. Ikerlariak Sakana eta makina artxibategi ibili ondoren ikertutakoa, jasotakoa, aztertutakoa 561 orrialdetan jaso zuen. Sakana ulertzeko ezinbesteko erreferentzia osatu zuen horrela. Carasatorrek liburuan bertan adierazten zuenez, obraren asmoa da "Arakil ibaiak Aizkorbe eta Ziordia artean zeharkatzen duen lurraldea ulertzeko oinarriak ematea". Liburua bera sakandarrei eskaini zien egileak. Inolako laguntzarik gabe argitaratu zuen liburua.

Liburuaren aurreneko 50 orrialdeetan honako berri ematen du: jasotako hizkuntza ekarpenak; erlijioari buruzkoa; Arakil ibarreko despopulatuak; burdina egitea; abeltzaintza, bestelako animaliak eta otsoak harra-patzeko otsaportilloak; bestelako jarduerak; ur-korronteak, baltsak eta iturriak; mugarriak eta mugak eta etxe-izenak. Lana herriz herriko toponimoen zerrrendak ixten du.

Zati handiena entziklopedia-hiztegi moduan dago. Han euskarazko hitzekin batera toponimoak eta ibarra osatu zuten despopulatuen berri ematen da. Horieta batzuk oraindik ere gaur egun geografian kokatzea falta da, beraz, landa lana egiteko aukera bada oraindik. Hori baitzen bere asmoa etorkizuneko ikerketarako oinarri izatea.

### Segida

Carasatorrek historia testuak argitaratzen segitzen du documentanavarra.blogspot.com blegean. Nafarroako Artxibo Nagusiko eta zenbait udal artxibotako dokumentazioa ari da argitaratzen. Sarrera asko eta asko Sakanari buruzkoak dira.

# #emanlikeeuskarari

## Matrikula zaitez euskaltegian

2018/2019 IKASTURTEA

**DIRU-LAGUNTZAK MATRIKULATZEKO**

**948 012 012**

[www.euskarakasi.nafarroa.eus](http://www.euskarakasi.nafarroa.eus)

BIDEOA



### ANTOLATZAILEAK

**Euskarabidea eta toki entitateak:**

Aezkoa, Aoz / Agoitz, Ansoáin / Antsoain, Aranguren, Auritz / Burguete, Barañain, Basaburua, Berrioplano / Berriobeiti, Berriozar, Burlada / Burlata, Cendea de Olza / Oltza Zendea, Erro, Estella-Lizarra, Esteribar, Etxauri, Galar, Huarte / Uharte, Imotz, Lizoain-Arriasgoiti, Luzaide / Valcarlos, Mancomunidad de Irantz / Irantzuko Mankomunitatea Mancomunidad de Valdizarbe / Izarbeibarko Mankomunitatea, Odieta, Orkoien, Pamplona / Iruña, Puente la Reina / Gares, Sakanako Mankomunitatea / Mancomunidad de Sakana, Salazar / Zaraitzu, Tafalla, Ultzama, Valle de Arce / Artzibar, Valle de Egüés / Eguesibar, Valle de Roncal / Erronkaribar, Villava / Atarrabia, Zizur Mayor / Zizur Nagusia.

### LAGUNTZAILEAK

Nafarroako euskaltegiak



NAFARROAKO HIZKUNTZA  
ESKOLA OFIZIALAK  
ESCUELAS OFICIALES DE  
IDIOMAS DE NAVARRA

Nafarroako  
Gobernua  Gobierno  
de Navarra

 euskarabidea

# Sexu erasoaren kontrako protokoloa berrituta

Festetan mugimendu feministak 602 457 947 salaketa telefonoa 24 orduz martxan izanen du eta Gure Etxea eraikineko beheko solairuan informazio puntua zabalik egonen da egunero, 20:00etatik aurrera

## ALTSASU

Altsasuko mugimendu feministak eta Altsasuko Udalak festetako sexu erasoaren kontrako protokoloa duela bi urte jarri zuten martxan. Aldi berean, bi eragile horietako eta herri mugimenduko kideez osatutako sexu erasoaren kontrako mahaia osatu zen. Mugimendu feministako kide Itziar Perez Argomanizek jakinarazi zuenez, herri mugimenduetarekin eta gazte asanbladarekin adostutako neurriak jaso dituzte protokolo berrituan, Altsasuko festa eremua "emakumeendako seguruagoa izanen dela bermatu nahi dugulako".

Bi neurri gehitu zaizkio protokoloari. Alde batetik, "sexu erasoaren bat pairatu edo ikusi dutenek" salaketa telefonora hots egiteko aukera izanen dute, 602 457 947 zenbakira, 24 orduz piztuta izanen dena. Altsasuko Mugimendu Feministak kudeatuko du. Perezek azaldu zuenez, "gertatzen diren horien kontaketa eta salaketa publikoa oso garrantzitsua iruditzen zaigu. Helburua, eraso sexistei erantzun sozial eta politikoa ematea da. Aldi berean, emakumeari babesa, laguntza eta orientazioa emateko baliagarria izanen da". Bestetik, festetan informazio puntua izanen da Gure Etxea eraikinaren beheko solairuan, 20:00etatik aurrera.

## Deia

Altsasuko mugimendu feministako kideek eskatu dute "gaintzeko eremuetan: tabernetan, elkarteetan eta kaleetan... erasoaren aurkako jarrera erakutsi dezazuen, bai Altsasuko gizarte erakunde guztioi, baita altsasuarroie ere". Perezek gaineratu zuenez, "badakigu, sistema marxista eta heteropatriarkal baten pean bizi garen heinean, emakumeok egunero jasaten ditugula eraso sexistak. Eta festak



Festa guneetan prebentzioa lantzeko eta erasoari aurre egiteko neurrien aurkezpena

## UDALA: "FEMINISTEN EKIMENAK PROTOKOLOA INDARTU DU. ZORIONAK"

ez dira salbuespena. Hain zuzen ere, jendartearen isla gordina dira, non botere harremanak eta gizartearen jarrerak birproduzitzen diren".

Hala ere, "eraso gisa ezagutzen ditugun egoera sexistak, beste askoren ondorio dira. Festetan ere, emakumeok behin eta berriro gure espazioa aldarrikatu beharrean egoten gara: taberna batean egoteko, edozein lekutan eta edozein pertsonarekin, edo kontzertu bat lehendabiziko lefroetan ikusi ahal izateko. Zer esanik ez oholtzaren gainean ematen zaigun tokia".

Mugimendu feministatik aldaketarako deia egin zuten: "festetan, tradizioz beteriko ospakizuna, nabarmena da sexu lan banaketa. Adibide bakar batekin ikusi dezakegu: nork garbitzen du arropa txuria?" Egoera eraldatzera deitu zuten:

"festak eraldatzaileak izan daitezke, nola izan daitezkeen eraldatzaileak pentsatzen badugu. Jarri dezagun pertsona guztien plazera erdigunean, parekidesunez, indarkeria baztertuz".

## Sexu erasorik gabeko festak

Horixe aldarrikatuko dute udalak eta mugimendu feministak festetarako prestatu duten kanpainan. Arantza Bengoetxea berdintasun zinegotziak azaldu zuenez, "herritarren sentsibilizazioa landu" nahi izan dute. Horregatik, festetako egitarauan kartela jarri dute, festetarako esku gorriak banatuko dira eta festa-guneetan esku gorriak jarriko dira. Aldi berean, larunbatean gazteei zuzendutako bi tailer izanen direla jakinarazi zuten. Batetik, neskendako autodefentsa feminista (10:00etatik 14:00etara eta 15:00etatik 19:00etara) eta, bestetik, mutilendako "gizentasunetik festetara" izena duena (10:00etatik 14:00etara). Argi dagoelako sexu erasoaren aurrean emakumezkoen eta gizonzkoen erantzukizuna desberdina dela. Izena emateko: 948 564 826 edo berdintasuna@altsasu.net.

# ALTSASUKO FESTAK



## OSTEGUNA 13

**10:30** 2017ko kintari harrera eta zapien janzteia, udaletxe parean.  
**10:30** Hamaiketako gaztetxean, Peñen Batzordeak eskainia.  
**12:00** Festen eztanda handia! Suziri jaurtiketa, ezkila-jotzea, peñen desfilea, Altsasuko Gaita-jotzaileak, Altsasuko Txistulariak, erraldoien kalejira peñen txaranga-ekin eta Kolpez Blai Foru plazan.  
**16:00** Peñen kafea eta kalejira, Foru Plazan.  
**18:00** Poniak eta betizuak, Baratzako bide plazan.  
**19:30** Japoniar bonben jaurtiketa eta buruhandiak, Foru plazan.  
**19:30-21:30** Dantzaldia Tximeleta taldearekin, Foru plazan.  
**20:00** Peñen jaitsiera Zumalakarregi plazatik abiatuta. 21:30ean iristea Foru plazara.  
**21:40** Altsasuko Zortzikoa Altsasuko Txistulariekin eta Larrain Dantza Etxarriko gaita-jotzaileekin, Foru plazan.  
**22:00** Zezensuzkoa, Foru plazan.  
**22:15-00:15** Gazte Gauak Intxos-tiapuntan: jolastu dantzatu, afaldu (sukaldea irekita egonen da eta

freskagarriak udalaren kontura izanen dira).

**24:00-02:30** Dantzaldia Tximeleta taldearekin, Foru plazan.

## HERRI MUGIMENDUAREN EGITARAUA

'Jaiak herritik eta herriarendako' leloa euren eginez, Altsasuko Bilgune Feminista, Askapena, Ospa mugimendua, peñak, euskal preso eta iheslarien aldeko taldea, Gazte Asanblada, Ernai, Euskal Herrian Euskaraz, Ikasle Abertzaleak eta Altsun eskuaz taldea elkartu egin dira eta festetarako egitaraua osatu dute.

## OSTEGUNA 13

**10:30** Gosaia, gaztetxien.  
**13:00** Euskal preso ta iheslariengaiti elkartasun brindisa.  
**15:00** Elkartasun bazkaia.  
**16:30** Peñain kafiek.  
**18:00** Jolasa, gaztetxien.  
**20:15** Bajadika.  
**22:00** Elektro Txufla elektrobarangia.  
**04:00** Magrak, gaztetxien.

## Extremadurako patroiarren ospakizuna bihar

Extremadurako eguna, Guadalupeko amaren eguna, ospatuko du La Encina Extremadura kultur elkarteak bihar, ospakizunaren egunean bertan hain zuzen ere. La Encinak prestatutako egitaraua 10:00etan abiatuko da. Extremadurako ogiapurak izanen dira gosaltzeko elkarteetan. Ondoren, 11:30ean, Guadalupeko amaren omenezko

meza egingen da San Juan ermitan. Hura despedituta, kanpoko aldean auzatea izanen da bildutako guztiendako. Eguraldiak laguntzen ez balu auzatea elkarrean egingen dute.

Elizkizunaren ondoren, La Encina elkartearen bertan egingen dute patroiarren eguneko bazkaria. Eta, despeditzeko, Iortia kultur gunera joateko gonbidapena egin dute; izan ere, 18:30ean Iruñeko Extremadurako etxeko Raices y Brotes taldearen emanaldia antolatu dute.

## ETXEBERRIKO FESTAK

### Festa-asteburua

Gaur hasi eta igandera arte festari emanak egonen dira Etxeberrin. Gainera, ospakizunak herriko etxean egindako lanak mustutzeko baliatuko dituzte. Balkoi berriak botoko dute etxajua.

### OSTIRALA 7

10:00 Hamarretakoa.  
11:00 Mus txapelketa.  
14:00 Txupinazoa herriko etxetik.  
14:30 Herri paella-jana. Ondoren, bertsolariak eta herri-kantak.  
19:30 "Korri, harrapatuko zaituela" eta Etxeberriko kilikiak, txistulariekin.  
20:00 Dantzaldia Felix dj-rekin.  
21:00 Pintxo-potea eta atzera pausoa. Hirugiharra, txistorra, tortilla eta goxoen dastatzea.  
22:30 Dantzaldia Felix dj-rekin.

### LARUNBATA 8

10:30 Meza.

11:00 Etxez etxeko erronda, Irurtzango trikitalariek alaituta.  
17:00 Herri kirolak.  
19:30 "Korri, harrapatuko zaituela" eta Etxeberriko kilikiak, txistulariekin.  
20:00 Zunba Los Andusekin.  
21:00 Dantzaldia Los Andusekin.  
22:00 Herri-afaria.  
00:30 Dantzaldia Los Andusekin.  
04:30 Aulkien jokoa.

### IGANDEA 9

11:00 Herri Erdi elkartean estropadak.  
12:00 Pilota partidak.  
14:30 Herri-bazkaria eta gazta jokoa.  
17:00 Dantzaldia Txubin Ibañezekin.  
19:30 "Korri, harrapatuko zaituela" eta Etxeberriko kilikiak, txistulariekin alaituta.  
20:00etan Txokolate-jana.  
20:15ean Txerrikume, gazta eta kamixeten zozketa.  
20:30ean Hau pena nik!

## HIRIBERRI ARAKILGO FESTAK

### Iluntzetik aurrera, festa!

Hiriberriko festak gaur arratsaldean hasiko dira. Garai batean irailaren 8an ziren festak eta horregatik egun horretatik gertuen dagoen larunbata hartzen saiatzen dira hiriberriarrek. Aurten ez dute halakorik larunbata 8 baita. Gainera, egun horretan, mozorroen laguntzaz, Hiriberri Arakil tropikoko herri bat bihurtu nahi dute. Festak antolatzerakoan kontzejua elkarteari dirua ematen dio eta elkarteak ere beste zati bat jartzen du.

### OSTIRALA 7

12:30 Triki-potea Alaineekin eta Gaizkarekin.  
14:00 Altsasukoak aske argazkia.  
14:30 Herri-bazkaria.  
16:30 Mus eta parxis txapelketak.  
17:30 Haurrendako ginkana eta kilikiak.  
20:00 Otamena.  
20:30 Dantzaldia Gabezin taldearekin.  
22:00 Zezensuzkoa.  
00:30 Dantzaldia Gabezinekin.

02:30 Aulkien jokoa.  
04:30 Gaupasa Txitera elkartean.

### LARUNBATA 8 TROPIKALA

12:00 Puzgarriak.  
12:30 Kalejira Jarauta 69 txarangaekin.  
14:30 Kuadrilla arteko bazkaria.  
16:30 Puzgarriak.  
17:30 Erronda-ginkana elektrotxarangaekin.  
20:00 Otamena.  
20:30 Dantzaldia Tximeletarekin.  
22:00 Zezensuzkoa.  
00:30 Dantzaldia Tximeletarekin.  
00:30 Mozorro festa tropikala.  
04:30 Gaupasa Txitera elkartean.

### IGANDEA 9

12:30 Denak Batean gospel abesbatza.  
17:00 Haurren antzerkia eta txokolate-jana.  
17:15 Maksin magoa.  
18:00 Bingoa.  
18:30 Dantzaldia Anitaren Bilobak-ekin.  
20:00 Otamena.  
21:00 Zezensuzkoa.

## ZIORDIKO FESTAK



### Hiru festa egun aurretik

Ziordiko festak herenegun arratsaldean hasi ziren. Udalak emandako diruarekin, Errekakartea elkarte arduratzen da Ziordiko festen antolaketaz. Horretarako sei kideko festa batzordea osatzen dute urtero. Haiek dira egitaraua prestatzeaz aparte ospakizunei hasiera zeinek emanen dien proposatzen dutenak. Aurten Ziordian kirola sustatzen egindako lanagatik eta herriari bizia emateagatik, hasierako etxajua Jose Ramon Ramirez Perezek izan zuen (ikus azken orria).

Ondoren 2017an jaiotako bederatzi ziordiarrei zapia jarri zieten: Lizar Arregi Mendizabal, Dylan Sanchez Gonzalez, Christian Sanchez Enache, Xune Perkaz Cid, Ibai San Vicente Fernandez, Marc Urretabizkaia Pozueta, Danel Lafuente Ruiz de Luzuriaga, Antxon Azpiroz Arakama eta Suhara Flores Ojer.



### OSTIRALA 7

11:30-13:30 Haurrendako Jokulandia jolas parkea.  
12:00 Apar-festa.  
17:00 Bordetxe abere-zirkua, txipudian.  
19:00 Begiekin ikusten gara kale ikuskizuna.  
20:00 Japoniar bonbak eta buruhandiak.  
20:00 Gazta, ardoa eta kakahuete banaketa.  
20:00 Kantu-potea tabernaz taberna.  
20:30 Elektrotxuffa elektrotxaranga, gaztetxearen laguntzarekin.  
22:00 Zezensuzkoa.  
23:00 Kontzertuak: The Guilty Brigade eta Flitter. Ondoren, Txumar dj-rekin.

### LARUNBATA 8

09:00 Aurora.  
13:00 Meza.  
13:30 Cal y Arena musika emanaldia.  
14:30 Jubilatuen bazkaria Cal y Arenak girotuta.

17:00 Txirindulari proba. Burunda Txirindulari Taldeak antolatuta.  
20:00 Batuklang batukada, gaztetxearen laguntzarekin.  
20:00 Japoniar bonbak eta buruhandiak.  
20:00 Gazta, ardoa eta kakahuete banaketa.  
20:00-22:00 Dantzaldia The Trikiteens taldearekin.  
22:00 Zezensuzkoa.  
00:00-04:00 Dantzaldia The Trikiteens taldearekin.

### DOMEKA 9

13:30 Los Tenampas mariatxiaren emanaldia.  
16:30 Futbol txapelketa: Ziordia, Araia, Lakuntza, Irañeta eta Uharte Arakil.  
18:00 Dantzari txikiak.  
19:00 Herri kirol erakustaldia.  
20:00 Japoniar bonbak eta buruhandiak.  
20:00 Gazta, ardoa eta kakahuete banaketa.  
20:00 Dantzaldia Joselu Anaiarekin.  
22:00 Zezensuzkoa.  
23:30-01:30 Dantzaldia Joselu Anaiak taldearekin.



Zabaletak Olaizola II.aren bikotea osatuta lortu zuen Donostiako Hiria Torneoa. San Mateotan ere elkarrekin ariko dira. ASEGARCE

## Gasteizen, Bilbon eta Donostian txapeldun

**PILOTA** Jose Javier Zabaletak Mari Zuria, Bilboko Aste Nagusia eta Donostiako Hiria torneoak irabazi ditu, Altuna III.a, Elezkano eta Olaizola II.a bidaide izan dituela. Ezkurdiak eta Martijak ere txapela bana lortu dituzte eta Aspek Kpilota desafioa

Udako torneoetako izarretako bat izan da Jose Javier Zabaleta. Etxarrengo pilotariak hiru txapel bildu ditu abuztuaren hasieratik hona, Gasteizen, Bilbon eta azkena asteburuan, Donostian.

Lehena Gasteizen jantzi zuen, Jokin Altunarekin batera. Etxarrengoak eta Amezketaok uste baino errazago irabazi zieten sanferminetako txapeldun Joseba Ezkurdiari eta Beñat Rezustari (22 eta 13), distira gutxi-ko finalean. Final lehiatua espero zen, ez zegoen faborito argirik, baina Altunak eta Zabaletak agintea hartu zuten eta Ezkurdiari eta Rezustari ez zieten aukerarik eman. Horrela, elkarrekin Andre Maria Zuria- ren bigarren torneo lortu zuten Altunak eta Zabaletak.

Bilboko Aste Nagusiko Torneoan, aldiz, arerio izan ziren Zabaleta eta Altuna. Zabaletak Elezkanorekin osatu zuen bikoa eta Altuna III.ak, aldiz, Martijarekin. Finalerdian elkarren

kontra aritu ziren bi bikoak eta ikusgarri aritu zen Etxarrengo atzelaria. Martija bere onetik ateratzea lortu zuen eta azkenean, 11 eta 22 irabazi eta gero Bilboko Aste Nagusiko finalerako sailkatu ziren Zabaleta eta Elezkano. Olaizola II.a eta Larunbe izan zituzten aurkari torneo-ko finalean, abuztuaren 25ean. Pilota zaleek final ederra espero zuten, lehiatua, baina Zabaletak eta Elezkanok nagusitasun handiz jantzi zuten txapela, hasieratik agintea hartu eta 22 eta 9 irabazi zuten.

Azken txapela larunbatean jantzi zuen Etxarrengoak, Donostia Hiria Torneoakoa. Kasu honetan Aspek eta Asegarcetek txapelketa mistoa antolatu zuten, eta bi enpresetako pilotariak elkarrekin jokatu zuten. Horrela, finalerako Aimar Olaizola eta Jose Javier Zabaletak osatutako bikotea eta Arteaga II.ak eta Beñat Rezustak osatutakoa sailkatu ziren. Nafarrek hasieratik hartu zuten aldea eta 13

eta 10etik 18 eta 11ra pasa ziren ia oharkabean. Azkenean, 22 eta 15 irabazi zuten eta Aimar Olaizolak udako bere lehen txapela eta Zabaletak, aldiz, hirugarrena lortu zuten.

### Ezkurdiaren eta Martijaren beste txapelak

Zabaletak lortutakoez gain, beste txapela batzuk iritsi dira Sakanara egunotan. Abuztuaren 16an Labastidako Torneo-ko finala jokatu zuten Julen Martijak eta Altuna III.ak Bengoetxea VI.aren eta Albisuren kontra. Final bikaina izan zen, oso estua, azken arte erabaki ez zena. 14 eta 18 galtzen egon ondoren, markagailuari buelta eman zioten Altunak eta Martijak, lan

### ALTSASUKO FESTETAN PILOTARI SAKANDARRAK LANEAN IKUSTEKO AUKERA IZANEN DUGU

itzela egin eta gero, eta, bukarean, 22 eta 20 irabazi zuten, Labastidako txapel preziatua lortuz.

Bestalde, Bilboko Aste Nagusiak Bizkaia Torneo-ko finala hartu zuen abuztuaren 21ean. Bi talde aritu ziren elkarren kontra, Koltiza eta Anboto, eta Joseba Ezkurdiaren Koltizak lortu zuen garaipena. Lau t'erdian Joseba Ezkurdiak (Koltiza) 22 eta 10 irabazi zion Victorri (Anboto), eta binakakoan Iker Irri-barriak eta Beñat Rezustak (Koltiza) gutxigatik galdu zuten Iñaki Artolaren eta Jon Ander Albisuren (Anboto) kontra, 20 eta 22. Horrela, azkeneko partidak, buruz burukoak erabaki zuten: Elordik (Koltiza) 22 eta 10 irabazi zion Erasuni (Anboto) eta garaipena eman zion Koltiza taldeari. Bildumarako beste txapel bat lortu zuen Ezkurdiak.

Aipatzekoa da ere Aspek Kpilota txakoli desafioa irabazi zuela abuztuaren 28an Donostian, eta Karlos Argiñanoren upategietako 600 txakoli ardo botila irabazi zituen Eibarko enpresak. Donostian jokaturako jaialdian, lau t'erdian P. Etxeberriak 22 eta 10 irabazi zion Peña II.ari; Altuna III.a eta Ezkurdiak 12 tantotan utzi zituzten Artolak eta Olaizola II.ak; eta azken partidari Elezkano II.ak 22 eta 20 hartu zuten menpean Victor, buruz buru.

### Altuna III.a-Martija vs Ezkurdiak-Zabaleta, Altsasuko festetan

Altsasuko festetan jaialdi bikaina antolatuko du Aspek. Irailaren 14an izango da, hurrengo ostiralean, 22:00etan Burunda pilotalekuan izanen den partidari. Aspek pilotari sakandarrak lanean ikusteko aukera ezin hobe izango da, jaialdia zabal-tzen duen partidari Adur Lasa ariko baita, Lasa IV.a, Retegi Birekin batera. P. Etxeberria eta Martinez izango dituzte aurkari. Eta partida nagusian Altuna III.aren kontra da Julen Martija etxerberriarra, Joseba Ezkurdiak arbizuarraren eta Jose Javier Zabaletaren kontra aritzeko. Sarrerak aurretik eros daitezke 661 259 009 telefonoan.

### San Mateoetara begira

Irailaren 16an hasiko da Logroño-ko torneo ezaguna. Aurten mistoa izanen da. Olaizola II. arekin ariko da Zabaleta, Imazekin Ezkurdiak eta Artolarekin Martija.

## Otadiko Kristo Deuna Txapelketa, aurrera

**PILOTA** Larunbatean torneo-ko 3. jardunaldia jokatu da Burunda pilotalekuan, 21:30ean

Otadiko Kristo Deuna Pilota Txapelketaren 49. edizioa jokatzen ari da Altsasun, 3 mailatan: jubeniletan, 23 urtez azpikoetan eta, lehenengoz, emakumezkoetan. Hiru bikote jokatzen ari dira maila bakoitzean; multzo bakoitzean denak denek kontra dabilta eta multzo bakoitzeko onenak sailkatuko dira Altsasuko festetan, irailaren 15ean jokatu diren final handietarako.

Dagoeneko txapelketako hasierako bi jardunaldiak jokatu dira eta bihar, larunbatean 3. jardunaldia jokatu da, 21:30etik aurrera, Burunda pilotalekuan.

## 49. Otadiko Kristo Deuna

**3. jardunaldia** (Bihar, 21:30ean, Burundan)

- **Emakumeak** Mendizabal-Agirre / Alonso-Igoa
- **Jubenilak** Osa-Elizegi / Olaetxea-Lazkoz
- **23 azpikoak** Mata-Olaizola / Canabal -Garmendia

**Emaitzak: 1. jardunaldia** (abuztuak 25)

- **Emakumeak** Garai-Bergara 18 / Alonso-Igoa 12
- **Jubenilak** Osa-Elizegi 22 / Agirremalloa-Malaxetxerberria 9
- **23 azpikoak** Canabal-Garmendia 22 / Azketa-Kordon 12

**Emaitzak. 2. jardunaldia** (irailak 1)

- **Emakumeak** Leire Garai-Arrate Bergara 18 / Mendizabal-Narrea Agirre 11
- **Jubenilak** Ariztegi-Malaxetxerberria 4 / Olaetxea-Lazkoz 22
- **23 azpikoak** Nazabal-Arbizu 10 / Azketa-Elizegi 22



Erbiti, taldea gidatzen. GOMEZ-MOVISTAR

## Erbitik eta Izagirrek Vueltan prakak bete lan

### TXIRRINDULARITZA

Movistarrek urte baterako luzatu dio kontratua Imanol Erbitiri

Espainiako Vueltak lan erdiak eginak ditu. Hala ere, aukera guztiak zabalik daude, sailkapen orokorra zabal-zabalik baitago. Simon Yates (Mitchelton) da lider, Movistarreko Alejandro Valverde segundo batera eta bere taldekide Nairo Quintana 14 segundora dituela. Jon Izagirre (Bahrain) da laugarrena, 17 segundora. Mendiko etapa gogorrek datoz egunotan Asturias aldean, Covadonga Lakuen etapa mitikoa tartean, eta sailkapen orokorrean mugimenduak espero dira.

Valverde eta Quintana bere liderrak laguntzen lan andana egiten ari da Imanol Erbiti. Hiriberriko txirrindularia sasoi betean dago eta bere talde buruendako ezinbestekoa da. Sailkapenean 121.a da.

34 urte ditu Erbitik baina egiten duen lan bikainari aitortza eginez, Movistar Team taldeak urte baterako berri dio kontratua.

Bestalde, Gorka Izagirre (Bahrain Merida) bere anaia Ion Izagirreren aldeko lan bikaina egiten ari da. Sailkapen orokorrean 28.a dago Ziordian bizi den gipuzkoarra, sailkapenean laugarrena den anaia babesten. Aipatzekoa da bi anaiek taldea aldatuko dutela eta hurrengo denboraldian Astana taldean ariko direla.

# Josu Etxeberria eta Igor Arrieta gorenean

**TXIRRINDULARITZA** Intersport Irabiako Josu Etxeberria junior iturmendiarrak Iruñeko Itzulia irabazi zuen eta talde bereko Igor Arrieta kadete uhartearrak Lakuntzako Saria eta Nafar Kirol Jolasak. Unai Aznarrek eta Aitor Alberdik ere garaipenak lortu dituzte

Aralar Txirrindularitza Klubeko Intersport Irabia taldean garaipen potoloak ospatu zituzten abuztuaren. Garrantzitsuena, akaso, junior mailako Josu Etxeberria iturmendiarrak lortutako Iruñeko Itzulia izan zen. Baina kadeteen mailan Igor Arrietak eta Aitor Alberdik garaipen bikainak lortu zituzten ere. Burunda Klubeko Quesos Albeniz taldeko Hugo Aznarrek ere garaipen politikak ekarri dizkio Altsasuko taldeari.

Abuztuaren 7tik 10era jokatu zen Iruñeko Itzulia, eta junior mailako puntako taldeak bildu ziren bertan. Lehen etapan Josu Etxeberria eta Arcabuco taldeko Jonathan Chaves kolonbiarra batera iritsi ziren helmugara eta esprintean etapa garaipena eta lidergoa lortu zituen Josu Etxeberriak. Bigarren etapa Etxarri Aranatzen jokatu zen eta esprintean Cartagena taldeko Oscar Sanchez Ecotisako Oscar Tellezi gailendu zitzaion, baina Josu Etxeberriak lidergoari eutsi zion. Hirugarren etapan HTM taldeko Jenson Young britainiarra iritsi zen bakarrik Txoribarreko helmugara eta lidergoa kendu zion Josu Etxeberriari, 14 segundoko tartearrekin.

Baina laugarren etapan bikain erantzun zuen Iturmendikoak, beste 7 txirrindularirekin batera eraso jo baitzuen. Ampo taldeko Xabier Berasategik irabazi zuen etapa, Josu Etxeberria bosgarrena izan zen eta 31 segundo atera zizkion Jenson Young liderrari eta Iruñeko Itzulia irabazi zuen, meritu handiz, Youngi 17 segundo eta Xabier Berasategiri 32 segundo aterata. "Ametsa da, bezperan oso zaila ikusten nuelako" zioen iturmendiarrak pozarren pozez. "Nafarroan kalitatea dago, txirrindularitza taldeak lan ona egiten ari dira. Kalitate handiko lasterketa izan da, eta garaipena



Josu Etxeberria, Iruñeko Itzuliko liderra, Lizarragako portuan gora. MARTIN EARLY

## ARALAR ETA BURUNDA KLUBETAKO TXIRRINDULARIEN DENBORALDIA BIKAINA ARI DA IZATEN

hemen geratzea, kanpoko talde oso garrantzitsuak zeudela kontuan hartuta, nabarmentzekoa da" gaineratu zuen.

Aipatzekoa da Tafallako El Caserio Valsay taldean dabilen Jon Gil lakuntzarrak Kiroltasunaren Saria jaso zuela.

Horretaz gain, abuztuaren 29an Dicastillon txapelduna izan zen Josu Etxeberria.

### Alberdi Tafallan eta Arrieta Opakuan, Los Arcosen eta Lakuntzan

Kadeteen mailan ere pozik egoteko arrazoi asko dituzte Lakuntzako Aralar Txirrindularitza klubean. Abuztuaren 12an Tafallan jokaturako lasterketa Aitor Alberdi arbizuarrak irabazi zuen, Quesos Albenizko Hugo Aznarren aurretik. Abuztuaren 19an Opakuako Igoera jokatu zen, kronometratutako

proba, eta kadeteetan Intersport Irabiako Igor Arrieta nagusitu zen (20:22), Quesos Albeniz taldeko Iker Mintegiren aurretik (21:26). Hurrengo egunean, bigarren garaipena lortu zuen segidan Igor Arrietak, Los Arcoseko proba irabazi baitzuen, bere taldekide Aitor Alberdiren eta Hugo Aznarren aurretik. Emaizta oso paretsua izan zen Lakuntzako festetan jokaturako 27. Sakana Fundizioa Sari Nagusian: Igor Arrietak merezitako garaipena lortu zuen, Lizarragako Katean sekulako eraso jo eta txirrindulari guztiak atzean utzi eta gero, eta bakar bakarrik iritsi zen helmugara (1:31:45), 42 segundora Hugo Aznar eta 1:17ra Aitor Alberdi sartu zirela. Mendiko saria ere eraman zuen Igor Arrietak eta etxeko taldea, Aralar klubeko Intersport Irabia, izan zen talderik onena. Lakuntzako probak Nafar Kirol Jolasak erabaki zituen eta Igor Arrieta izan zen txapelduna, baita mendian ere.

### Unai Aznar nagusi Legarian eta Obanosen

Burunda Klubeko Quesos Albeniz taldeko Unai Aznar kadeteak

denboraldi bikaina darama. Abuztuaren 11n Legarian jokaturako lasterketan garaipena lortu zuen, Igor Arrietaren aurretik. Eta igandean Obanosen jokaturako kadeteen eta juniorren mailako lasterketa ere berarendako izan zen, helmugara bakarrik heldu eta gero. Igor Arrieta laugarrena sartu zen, Ailetz Lasa zazpigarrena, Josu Etxeberria 11.a, Iker Mintegi 15.a, Beñat Etxezarreta 19.a, Inhar Astitz 22.a, Jon Gil 24.a, Javier Mitxaus 26.a, Aitor Alberdi 30.a, Imanol Galarza 31.a eta Unai Villalobos 33.a. Quesos Albeniz izan zen talderik onena, Intersport Irabiaren aurretik.

Larunbatean kadeteek eta juniorrek lasterketa dute Lukinen, irailaren 15ean Tafallan eta irailaren 30ean denboraldiko azken lasterketa, Atarrabian jokaturako dena.

### Kategoria txikien lasterketa Ziordian

Larunbatean, Ziordiko festetan, kategoria txikiko txirrindularitza proba jokaturako da, 17:00etatik aurrera, Burunda Txirrindularitza Taldeak antolatutakoa.

## Altsasu lasterketa ate joka

Altsasuko festetan, irailaren 15ean, goizeko 10:00etatik aurrera jokaturako da SDA-k antolatutako LXXXIX. Altsasu txirrindularitza proba, afizionatuen mailan Sakanan jokatzeko den proba bakarra eta Euskaldun Txapelketa erabakiko duena. 121,6 km izango ditu probak eta Altamira bost aldiz igo beharko dute txirrindulariek, baina kontrako aldera, hau da, Olazitik igo eta Altsasutik jaitsi beharrean, alderantziz.

Lasterketa etengabe pasako da Altsasuko herri erditik, sei aldiz, eta txirrindularitza giro beroa izango da bertan. Tropel afizionatu onena ikusteko aukera izango dugu.



Osasuna Magnak denboraldi berrirako ekipazioen aurkezpena egin zuen . XOTA

# Nafarroako Kopako finala Altsasun jokatu da

**ARETO FUTBOLA** Areto futboleko lehen mailako partida izanen da, Osasuna Magna Xotak eta Ribera Navarra taldeak sailkatu baitira Nafarroako Koparako. Gaur, ostiralean jokatu da, 19:30ean, Zelandi kiroldegian

Altsasuko Zelandi Kiroldegian puntako areto futbolaz gozatze-ko aukera izango da gaur, ostiralean. Izan ere, Espainiako Areto Futbol Txapelketako lehen mailan aritzen diren bi talde nafarrek, Osasuna Magna talde irurtzundarrak eta Ribera de Navarra talde tuterarrak, lortu dute Nafarroako Areto Futbol Koparako sailkatzea, eta finala Altsasuk hartuko du, gaur, 19:30ean. Bi taldeek irailaren 14tik 16ra bitarteko asteburuan ekingo diote ligari eta ostiraleko Kopako finalera dena ematera aterako dira.

Nafarroako Kopako finalaren aurkezpena aurreko asteartean egin zuen Nafarroako Futbol Federazioak, tartean Altsasuko alkate Javier Ollo bertan zela. Federazioko presidente Rafa del Amok Altsasuko Udalaren inplikazioa eskertu zuen. "Altsasun ez dago areto futboleko talderik eta Kopako finala bertan jokatzearekin keinu bat egiten diegu, ea bertan talderen bat sor daitekeen" aipatu zuen del Amok.

Emakumezkoen Nafarroako Kopako finala bihar jokatu da, larunbatean, 19:00etan, Mutiloako Arangurengo Bailara pabilioian. UDC Txantreak eta Orbina Kirol Elkarteak jokatu dute preziatutako finala.

**Roberto Martil izango da Osasuna Magnako kapitaina** Javi Eserverri Osasuna Magnako kapitain mitikoak erretiroa hartu du 23 urtez talde berdeko kapitaina izan ondoren. Bere falta asko sumatuko du taldeak, baina hura ordezkatzeko lan egiten ari da taldea. Dagoeneko kapitain berria du taldeak, Roberto Martil irurtzundarra. Taldea batuta izatea eta taldea ordezkatzeko izango da bere egitekoa. Martilekin batera, Araçak eta Rafa Usinek ere kapitain lanak egingo dituzte.

Osasuna Magnak etxeko lan garrantzitsuak egin ditu azken hilabete honetan. Batetik, Alex Diz eta Juninho jokalarri berrien aurkezpena egin zuten. Imanol Arregi entrenatzaileak adierazi zuenez, fitxaketa berriekin "kontentu" dago. "Nahi izan genuen esperientzia duen atzelari bat fitxatzea, Juninhoren egokitapenean laguntzeko, eta izan ditugu fitxaketak egiteko bizpahiru aukera, baina diru kontuengatik ezin izan da. Hala ere, uste dut Araça taldekide izanda Juninho ongi trebatuko dela, proiektzio handiko jokalaria baita. Rafa Usin eta Eric Martel jokalarriak gurekin mantendu izana udako albisterik onenetakoa da guretako, gainontzekoen jarraipenarekin batera. Eta Eserverriren baja nabaritu dugu, baina gainontzekoek aurrera-pausua egiteko aukera emango du horrek" gaineratu zuen teknikariak.

**Babeslearekin akordioa** Bulegoko beste lan garrantzitsua Magnesitas de Navarra enpresa babeslearekin beste urte baterako kontratua berritzea izan da. Denboraldi berrirako ekipazioak Magnesitas de Navarrako Asturreta harrobietan aurkeztu zituen taldeak, Eugin. Lehen ekipazioa berdea izango da eta bigarrena gorria, Osasunaren kolorea. Atezainek, aldiz, kolore berdeaz eta gorriaz gain, beltza eta horia ere erabili ahal izango dituzte.

Bestalde, aurre denboraldiko lagunarteko partidetan txukun ibili da Imanol Arregiren taldea. 2. mailako Atletico Benaventer 12 eta 1 irabazi zion Osasuna Magnak, gero 2 eta 1 galdu zuen Peñiscolaren kontra eta atzera ere garaipenaren xendara itzuli zen talde berdea, Segovia Futsali 3 eta 2 irabazi eta gero. Movistar Inter talde ahaltsuaren kontra ere sorpresa ematekotan izan ziren nafarrak, baina, azken segundotan 3 eta 2 galdu zuen Osasuna Magnak. Eta asteartean, Peñiscolari 3 eta 1 irabazi zioten Noainen jokatuako partidaren.

(9:15) eta Goizeder Beltzarekin (9:46) lehia estua izan eta gero. Lehendabiziko hirurekin, Hodei Ezpeletak, Jokin Alkizaletekin eta Goizeder Beltzak, lortu zuten oraindik zehaztu gabe dagoen egun eta tokian jokatu den txapelketako final handia jokatzeko txartela. Txapelketako lehenengo kanporaketan sailkatutako Julen Larrea, Jesus Etxeberria eta Ioritz Gisasola aizkolariekin batera ariko dira oso lehiatua aurreikusten den finala.



Lagun Arteak lagunarteko partidak jokatu ditu azken hilabetean.

## Lagun Arteak eta Altsasu: erregionaleko denboraldia abian

**FUTBOLA** Beti Kozkor du arerio Lagun Arteak Lekunberrin eta Gazte Berriak Altsasuk Antsoainen

Erregional mailako 2018/2019 denboraldia asteburu honetan hasiko da. Bi talde sakandar izango ditugu lehian, Altsasu eta Lagun Arteak. Lakuntzako taldea preferente mailatik erregionalera jaitsi zen aurreko denboraldian eta, hortaz, maila berrian ariko da. Altsasuk, ordea, makina bat denboraldi daramatza erregionalen.

Lagun Arteak Lekunberrin jokatu du Beti Kozkor taldearen kontra, igandean, 18:30ean. Aldiz, Antsoainen ariko da Altsasu, igandean, 10:30ean, Gazte Berriak taldearen kontra. Talde sakandarrek hasiera ona eman nahi diote ligari, helburua ahal izateko. Aurrera, San Ignacio, Berriozar, Liceo Monjardin, Beti Kozkor, Iruña B, Ardoi B, Gazte Berriak, Salesianos eta Lagunak B izango dituzte bidaide.

Aldiz, preferente mailako denboraldia aste bat geroago hasiko da, irailaren 16ko asteburuan. Bertan lehiatuko da Etxarri Aranatz.

**Etxarri IMQ Kopan** IMQ Kopan 12 multzotan banatuta dabilte lehian, eta tartean Etxarri Aranatz parte hartzen ari da. Orain, Kopako bi jardunaldi jokatu dira. Lehendabizikoan Etxarri Aranatzek 3 eta 2 irabazi zion Gazte Berriak taldeari, Darlingek, Perkazek eta Asierrek sartutako golekin. Eta, larunbatean, Arrotxapearekin bina berdindu zuen Etxarrik. Izugarriko beroa zegoela, Arrotxapea aurreratu zen, baina Etxarrik buelta eman zion partidari, Aitorrek eta Xabatek sartutako golekin. Tamalez, Arrotxapeak berdintzea lortu zuen azken minutuan. Kopak azaroaren 1ean jarraituko du.

## AIZKORA Goizeder Beltza Euskal Herriko III. Mailako finalera

Abuztuaren 26an Euskal Herriko III. Mailako Aizkora Txapelketaren bigarren kanporaketa jokatu zen Gorritin. 13 aizkolarri lehiatu ziren, Goizeder Beltza etxarriarra tartean.

Kanporaketan parte hartu zuten aizkolariek lau kanaerdiko erdibitu behar zituzten. Hodei Ezpeleta izan zen azkarrena (9:06), Jokin Alkizaleterekin

(9:15) eta Goizeder Beltzarekin (9:46) lehia estua izan eta gero. Lehendabiziko hirurekin, Hodei Ezpeletak, Jokin Alkizaletekin eta Goizeder Beltzak, lortu zuten oraindik zehaztu gabe dagoen egun eta tokian jokatu den txapelketako final handia jokatzeko txartela. Txapelketako lehenengo kanporaketan sailkatutako Julen Larrea, Jesus Etxeberria eta Ioritz Gisasola aizkolariekin batera ariko dira oso lehiatua aurreikusten den finala.





Ioseba Fernandezek lau domina lortu zituen Europako Irristaketa Txapelketan, 3 urrezko eta zilarrezko bat. 00STENDE2018.EU

# Lau domina gehiago ditu Ioseba Fernandezek

**IRRISTAKETA** Belgikan jokaturako Europako Txapelketetan urrezko 3 domina eta zilarrezko bat lortu ditu irristalari iturmendiarrak, taldekako 500 m esprintean, 200 m esprintean, buelta bat esprintean eta 300 m erlojupekoan

Abuztuaren 16tik 23ra Europako Irristaketa Txapelketak jokatu ziren Belgikan, Oostenden. Garikoitz Lerga selekzionatzailerak gidatzen duen Espainiako Irristaketa selekzioa bikain aritu zen, 38 domina ekarri baitzituen Belgikatik. 38 domina horietatik 17 irristalari nafarrek lortu zituzten: 11 urrezko, tartean Ioseba Fernandezek 3 urrezko dominak; zilarrezko 2 tartean Ioseba Fernandezek zilarrezkoa; eta brontzezko 4.

Berriro Ere taldeko Ioseba Fernandez irristalariak lan itzela egin zuen Europako Txapelketetan. Pistan, taldekako 500 m esprintean urrea lortu zuen iturmendiarrak Patxi Peularekin batera, eta 300 m erlojupekoan bigarrena sailkatu zen, zilarrezko domina lortuaz. Eta zirkuituan beste bi urrezko domina eskuratu zituen Ioseba Fernandezek. Lehena 200 metro esprintean, azkarrena izan baitzen iturmendiarrak. Michel Mulder holandarra eta Ron Pucklitzsch alema-

niarra gainditu zituen Iosebak (16.182 segundo). Eta bigarrena abuztuaren 22an iritsi zen: iturmendiarrak bere hirugarren urrea lortu zuen buelta bat esprintean izeneko modalitatean, Holandako Ronald eta Michel Mulder bikiak atzean utzi eta gero. Horrela, Europako Txapelketako bere hirugarren garapena lortu zuen, bere laugarren domina. Guztira, beraz, urrezko hiru eta zilarrezko bat.

Ioseba Fernandezekin batera, lan ikusgarria egin zuten Ivan Galar, Maite Ancin, Maialen Oñate, Javier Larrasoaain, Beatriz Pejenaute eta Daniel Milagros irristalari nafarrek. Guztiek lortu zuten dominaren bat.

**MUNDIALETAN URREZKOA ETA EUROPAKOETAN 3 URREZKO ETA ZILARREZKOA DITU**

Gogoratu behar da ere uztairenen 1etik 8ra Munduko Irristaketa Txapelketak jokatu zirela Holandan eta munduko txapeladun izatea lortu zuela Ioseba Fernandezek, 100 metroko abiadura proban irabazi eta errekorra apurtu baitzuen (9.68 segundo). Beraz, Europako eta munduko txapeladun handia dugu iturmendiarrak, meritu handiko kirolaria.

**Sakanako II. Irristaketa Trofeoa bihar 10:00etan Altsasun**  
Sakana Patin Irristaketa Taldeak, Altsasuko Udalaren eta Nafarroako Irristaketa Federazioaren laguntzarekin, Sakanako II. Irristaketa Trofeoa antolatu du bihar, larunbatean, goizeko 10:00etatik aurrera Altsasuko Zumalakarregi plazan. Kategoria absolutuko lehendabiziko hirugarrenek jasoko dute saria: lehenek 100 euro eta oparia, bigarrenek 75 euro eta oparia eta hirugarrenek 50 euro eta oparia.



16 urtetik gorakoenei atletismoan trebatzen jarraitzeko aukera eman nahi zaie.

## Gazteendako Sakanako Atletismo Eskola sortu nahi da

**ATLETISMOA** 16 urtetik gorako eskola Altsasuko Dantzaleku pistan sortu nahi da. Izena eman daiteke

16 urtetik gorako neska-mutulen Gazteendako Sakanako Atletismo Eskola sortzea da Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuko helburuetako bat. Izan ere, Atletismo Kirol Eskolan 16 urte bitarteko neska-mutikoak trebatzen dira eta hortik aurrera nor bere kasa ibiltzen da atletismoan trebatzen.

### Hutsunea bete

16 urtetik gorakoen hutsune hori betetzeko sortu nahi du Gazteendako Sakanako Atletismo Eskola Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak, eta

egitasmoa aurrera eramateko Altsasuko Udalaren eta Dantzaleku Sakana Atletismo Taldearen laguntza izanen du.

Aipatu gazteendako eskolan izena ematen duten gazteak Altsasuko Dantzaleku pistan trebatuko direla, irailaren bukatetik maiatzera bitartean, oraindik zehaztu ez diren egun eta orduetan.

Gazteendako Sakanako Atletismo Eskolan aritu nahi duten gazteek Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzura jo behar dute (kirolak@sakana-mank.eus edo 948 464 866).

## NON ERABILI?

### TANIA ARRAINDEGIA

LAKUNTZA

50 €ko gastuarekin, etxeko produktua doan.

### ETXARRI HORTZ KLINIKA

ETXARRI ARANATZ

%10eko deskontua garbiketetan.

### NORTE ERLOJUDENDA

ALTSASU

%7ko deskontua produktu berrietan, konponketetan eta aldatketan salbu.

### URREZKOA BITXIDENDA

IRURTZUN

Bitxietan 100 €ko erosketa egitean, %10eko deskontua.

### ZURE EKO DENDA

IRURTZUN

€10 eko deskontua kontsulta terapeutikoetan.

### LURESU

ALTSASU

% 10eko deskontua eskaintza berezi eta enkarguetan izan ezik.

### MENDIGAIN URDEIAZPIKOKA

LAKUNTZA

50 €ko erosketa eginez gero etxeko produktua opari.

### ETXARRI KOMERTZIALA

ETXARRI ARANATZ

% 10eko deskontua menpekotasun altzarrietan.





Haurren Botxa Txapelketako partaideak, Iratxoko botxategian. IRATXO

## Iban eta Hugo Nagore Haurren Botxako txapeldunak

**BOTXA** Gaur Binakako Botxa Txapelketa hasiko da eta 9 bikote lehiatuko dira guztira, irailaren 23ra arte

Abuztuaren 27tik irailaren 3ra bitartean Haurren Botxa Txapelketa jokatu zen Irurtzunen, Iratxo elkarteak antolatutakoa. Jakina denez, botxa petanka antzeko jokoa da. Guztira 6 bikote lehiatu ziren: Angel-David Aiape, Ibon eta Hugo Nagore, Iago Albizu-Aitor Saralegi, Aitor eta Lierni Gelbentzu, Mikel Arregi-Oier Irujo eta Nassin eta Sara Dafoufi.

Irailaren 3an final handia jokatu zen. Partida ikusgarri eta borrokatuan, Angeli eta David Aiaperi 9 eta 15 irabazi zieten Ibon Nagorek eta Hugo Nagorek

eta beraiek izan ziren txapeldunak. Ondoren sari ematea izan zen.

### 9 bikote Binakako Botxa Txapelketan

Gaur, ostiralean, Binakako Botxa Txapelketa hasiko da. 9 bikote lehiatuko dira irailaren 23ra luzatuko den txapelketan: Julen Iribarren-Tere Otxoa, Eneko eta Mikel Razkin, Mikel Asensio, Migel Ollo-Mikel Gelbentzu, Mikel Arregi-Edurne, Pakita-Alicia, Txeli-Tere, Santos-Julen eta Zapa-Alfredo.

+ [www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)



AITOR HERNIAZ

## Guardetxe igoera Lakuntzan

**MENDI LASTERKETAK** Lakuntzako festen bezperan, Zabalarte elkarteak Guardetxe Igoera herrikoia antolatu zuen; Lakuntzako plazatik Guardetxera igo eta jaista zen erronka. Javi Gasanz altsasuarra izan zen azkarrena, Unai Bakaikoa eta Aitor Hernaiz lakuntzarren aurretik. Emakumezkoetan Olatz Aranburu eta Uxue Lazkano izan ziren azkarrenak.



Patxi Rubio, Arantzazu Larrañaga eta Joxeja Maiza Nafarroako Selekzioarekin aritu ziren, ultra luzeenean. NAFARROAKO FEDERAZIOA

# Beraza Valle de Tenako Traileko podiumean

**MENDI LASTERKETAK** 2K proban (20 km, 1.250 m desnibel +) hirugarrena izan zen Uhartte Arakilgo korrikalaria, lehen beterranoa. Patxi Rubio 14.a sailkatu zen probarik gogorrean (77 km, 6.800 m desnibel +)

Asteburuan Valle de Tena Traila jokatu da Panticosan, Pirinioetan, hiru distantzian: 8K (77 km, 6.800 m desnibel +), 4K (43 km, 3.600 m desnibel +) eta 2K (20 km, 1.250 m desnibel +). Jose Luis Beraza 2K distantzian lehiatu zen, tartean Punta dera Facera (2.288 m) igoera jasotzen zuena. 312 korrikalarietatik 246k lortu zuten proba bukatzea, Fran Naval buru zela (1:53:31). Aipatzekoa da bikain aritu zela Uhartte Arakilgo korrikalari fina eta hirugarrena iritsi zen helmugara (2:00:36), probako lehen beterranoa.

### Rubio, Larrañaga eta Maiza 8K proban, Nafarroako selekzioarekin

Valle de Tena Traileko probarik gogorrean, 8K proban, hiru sakandar lehiatu ziren Nafarroako selekzioarekin: Patxi Rubio eta Arantzazu Larrañaga uharte arakildarrak eta Joxeja Maiza etxarriarra. 258 korrikalarik hartu zuten irteera eta

179k lortu zuten proba bukatzea. Garmo Negro (3.064 m) izan zen gainditu behar izan zuten mendirik altuena. Andreu Simon izan zen 77 km eta 6.800 metroko desnibela zuen lasterketa gogorreko txapeldun handia (11:46:05). Patxi Rubiok lasterketa ona egin zuen eta 25.a sailkatu zen, lasterketan 14 ordu eta erdi eman eta gero (14:31:08), baina Arantzazu Larrañagak eta Joxeja Maizak proba utzi behar izan zuten, Larrañagak 9 ordu eta erdi zeramatzala, Bachimaña aterpetik pasa eta gero, eta Maizak 11 ordu pasa zeramatzala, La Sarra gainditu ondoren.


### Katarain bigarrena Usurben eta hirugarrena Itziarren

Beñat Katarain mendi korrikalaria ere ez da geldirik egon. Asteburuan jokaturako Usurbe Igoeran bigarrena sartu zen lakuntzarra (22:41), Ahmed Moujane irabazlearengandik 18 segundora. Eta Itziargo mendi lasterketan hirugarrena sailkatu zen Katarain.



Jose Luis Beraza, podiumean. BERAZA

## RUBIO, LARRAÑAGA ETA MAIZA NAFARROAKO SELEKZIOAREKIN ARITU ZIREN



FELIPE FERNANDEZ

## Flores, Espainiako txapelduna

**AUTOMOBILISMOA** Garikoitz Flores lakuntzarrak (BRC B49) Espainiako Mendi Txapelketako 2. Kategoriako Txapelketa irabaztea lortu du, Galiziako Chantadako igoeran bere mailan garaipena lortu eta gero. Orokorrean 145 puntu ditu eta Arkaitz Ordoki bigarrenari (BRC B49) 38 puntu ateratzen dizkio (107 puntu). Txapelketako azken proba irailaren 29an jokatu da.

## Iker Ingelmo Kintana, Aragoiko Karts txapelduna

**AUTOMOBILISMOA** Aragoiko Karts Txapelketan gailendu da karts pilotu olaztiarra

Iker Ingelmo Kintana olaztiarra karts lasterketan ibiltzen da. Aurten ez zuen Euskal Herrian lehiatzerik izan, zirkuiturik ez dagoelako, eta horregatik Aragoira jo zuen, bere mailako txapelketa batean aritzeko. Aragoiko txapelketaren barruan, hainbat karting zirkuitutan lehiatu zen: Zueran, Torremochan eta Alcañizen, tartean.

Lehenengo txapelketa martxoaren 18an jokatu zen, Zueran, eta primerako lana egin zuen Ikerrek, lehendabizikoa sailkatu baitzen. Ondoren, Torre-

mochakoa etorri zen eta azkeneko lasterketa Alcañizeko Motorlanden jokatu zen, abuztuaren 5ean. Aipatzekoa da lasterketen bezperan hartzen zuela Aragoiko bidea Iker Ingelmo Kintanak, bezperatik aipatu zirkuituetan entrenatu ahal izateko. Azkeneko proban ikusgarri aritu zen olaztiarra. 1,6 km-ko zirkuituan buelta azkarrena minutu eskasean -1:03.316- egin zuen Ikerrek. Hasieratik gogoz sakatu zuen azeleragailua eta hegan egin zuen. Aurretik zuen Sergio Abe-



Saritutako guztiak, probaren bukaeran. Istripua izan zuen Josu Cerezo lakuntzarrari txapela eman zioten. ARAKIL MOTORSPORT

# Irurtzun-Arakil Rallysprinta egonkortzen

**AUTOMOBILISMOA** Joseba Beola eta Jose Luis Irtzoki izan ziren txapeldunak 39 talderen artean. Pilotu sakandarrek ez zuten zortea alde izan. Pilotuek ibilbidearen edertasuna eta antolakuntza bikaina nabarmendu zituzten

Eguraldia lagun jokatu zen, larunbatean, II. Irurtzun-Arakil Rallysprinta, Nafarroako Rally Txapelketarako baliagarria zena.

Etxarrenetik aterata, Egiarretako Itxasperrira eta Etxeberri parera jo behar zuten autoek, handik Madotz igo eta Oderitz pasa ondoren, Astitzera heldu. Ibilbidea hiru aldiz egin behar izan zuten proban parte hartu

zuten 39 ibilgailuek, eta horietatik 25 taldek lortu zuten proba despeditzea. Azkarrenak Joseba Beola pilotua eta Jose Luis Irtzoki kopilotua (Mitsubishi Lancer Evo X R4) izan ziren (22:18 minutu).

Pilotu sakandarrek ez zuten zortea alde izan. Garikoitz Goñi pilotu etxerriarrak eta Iñaki Arivek (Renault Clio Sport)

etxean jokatzeko zuten, antolakuntzan buru-belarri egoteaz gain, baina autoan matxura izan eta gero -palierreko homozinetika apurtu zitzaizen- erretiratu egin behar izan ziren, rallyko 2. eremua pasa eta gero, pena handiz. Mikel Mendinueta pilotu arbizuarra ere (Peugeot 205 GTi) 2. eremua pasatu eta gero erretiratu egin zen.



Iker Ingelmo Kintana Aragoiko Karts Txapelketako txapeldunaren saria jasotzerakoan. KINTANA

noza gairiditu zuen, gero boxetan Abnozaz berriro aurrea hartu zion olaztiarrari eta hura

gailendu zen, baina sailkapen orokorra kontuan hartuta Iker Ingelmo Kintana dugu Aragoi-

ko Karts txapelduna, Sergio Abnozaren eta Alberto Justesen aurretik.

## AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / gutunak@guaixe.eus

## OSTIRALA 7

**ETXARRI ARANATZ** Beilatokia toki egokian. *Nahi izanez gero posible da kontzentrazioa.* 19:00etan, Kale Nagusiko 7. zenbakiaren parean.

**ARBIZU ETA ETXARRI ARANATZ** Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioak. 20:00etan, plazan.

**ALTSASU** Altsasukoak aske kontzentrazioa. 20:00etan, udaletxe parean.

**ALTSASU** Mont Blanc mendiko bideo eta argazkien proiektzioa **Cristina Diegoren** eskutik. 20:30ean, Mendigoizaleen elkartearen.

**ARBIZU** Euskaraldiaren aurkezpena: Txintxo ibili bakarriketa. 22:00etan, plazan.

**ALTSASU** III Poker torneo. La Encina elkarteak antolatuta. 22:30etik aurrera, La Encina elkartearen.

## LARUNBATA 8

**ALTSASU** Altsasu-Urbasa-Marañon-Opakua-Agurain-Altsasu 140 km-ko ibilbidea eginen dute Barranka Txirrindulari Taldeko errepide atalekoek. 08:00etan, San Juan plazatik.

**UHARTE ARAKIL** Aralarko pagadia, karst eta behatokiak bisita gidatua. 12-14 km-ko ibilbidea. Erreserbak: info@mirua.com eta 608560369. 10:00etatik 13:00etara, Aralarko santutegiko informazio gunetik.

**ALTSASU** Autodefentsa feminista, gazteendako. Izen ematea: 948 564 826 edo berdintasuna@altsasu.net. 10:00etatik 14:00etara eta 15:00etatik 19:00etara, Garbitokin.

**ALTSASU**. Gizentasunetik festetara. Izen ematea: 948 564 826 edo berdintasuna@altsasu.net. 10:00etatik 14:00etara, Gure Etxean.

**ALTSASU** III Poker torneoaren finalerdiak eta finala. La Encina elkarteak antolatuta. 16:00etatik aurrera, La Encinan.

**BAKAIKU** Asen Eskalada eta Hiron Yoshida ipuin kontalariak rakugoak (ipuin japoniarak) kontatuko dituzte. 16:30ean, barnetegian.

**ARBIZU** Ubelderen festa. Haurrendako ipuin kontalaria, eskulanak eta txokolatea. 17:00etan, Gaztetxokoan.

**ALTSASU** Guillem Albà & La Marabunta taldearen Marabunta ikuskizuna. 19:30ean, lortia kultur gunean.

## IGANDEA 9

**ALTSASU** San Julian eta Marutegira 42 km-ko ibilbidea eginen dute Barranka Txirrindulari Taldeko mendi atalekoek. 08:00etan, taldeko egoitzatik.

**ARBIZU** Ubelderen festa: ibilaldia, eskulanak, jolasak eta aatea. 12:00etan, Ubeldean.

**ALTSASU** 'Raices y brotes' Iruñeko Extremadurako Etxeko taldearen folklore jaialdia. La Encina elkarteak antolatuta.

18:30ean, lortia kultur gunean. Egun osoan zehar Guadalupeko ama birjinaren omenezko erromeria. Ikusi 12. orria.

**ALTSASU** Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioa. 20:00etan, Foru plazan.

## ASTELEHENA 10

**ALTSASU** Pentsio duinen alde. Nafarroako Pentsionistak Martxan eta Otsailaren 22ko Plataformak deitutako kontzentrazioa. 19:30ean, Zumalakarregi plazan.

## OSTEGUNA 13

**ETXARRI ARANATZ** Errepresaliatu gaixoak kalera, amnistia osoa. AEMren Kontzentrazioa. 19:30ean, plazan.



**UHARTE ARAKIL** Kristauak erasopean munduan zehar argazki erakusketa. Irailaren 30 arte. 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara, Aralarko santutegian.



**ALTSASU** Festen kartel lehiaketara aurkeztu diren proposamen erakusketa. Abuztuaren 28tik irailaren 9ra arte. 10:00etatik 14:00ak arte, lortia kultur gunean.

## JAIOTZAK

- **Mohammed Amir Missaoui**, uztailaren 3an Lakuntzan
- **Mor Mbaye Lo**, uztailaren 9an Olaztin
- **Leire Dos Anjos Acacio**, uztailaren 28an Altsasun
- **Luka Manjón Lopez de Goikoetxea**, uztailaren 31n Altsasun
- **Kenya Urizar Caldito**, abuztuaren 3an Altsasun
- **Coumba Sow**, abuztuaren 5ean Altsasun
- **Itsaso Lizarraga Azkona**, abuztuaren 25ean Irurtzunen
- **Saioa Gamboa Huarte**, abuztuaren 27an Uharte Arakilen
- **Leo Irurtia Barriga**, irailaren 2an Irañetan
- **Adur San Gil Lasa**, irailaren 4an Olaztin

## EZKONTZAK

- **Jorge Burillo Mateo eta Nora Olaechea Moreno**, uztailaren 27an Lakuntzan
- **Carla Tatiana Gomez Ojalvaro eta Walter Ivan Vargas Hurtado**, abuztuaren 4an Lakuntzan
- **Miren Idoia Arabaolaza Amezua eta Ramon Romero Piñas**, irailaren 3an Lakuntzan

## HERIOTZAK

- **Inocencia Auza Agirre**, uztailaren 29an Irurtzunen
- **Jose Maria Ruiz de Egilaz Sarasa**, uztailaren 31n Irurtzunen
- **Florencia Felipe Ruiz**, abuztuaren 5ean Altsasun
- **Francisco Perez Lezea**, abuztuaren 11n Altsasun
- **Jose Antonio Sesma Pastor**, abuztuaren 13an Etxarri Aranatzen
- **Eugenia Aranburu Ijorra**, abuztuaren 15ean Etxarri Aranatzen
- **Purificacion Ocaña Garziarena**, abuztuaren 16an Uharte Arakilen
- **Jesus Maria Lopez de Agileta Valtierra**, abuztuaren 21ean Olaztin
- **Francisco Cortés Muñoz**, abuztuaren 21ean Altsasun
- **Celedonio Iribarren Iriarte**, abuztuaren 24an Altsasun
- **Millan Berastegi Zaldua**, abuztuaren 24an Arbizun
- **Teodora Aranda Sastre**, irailaren 5ean Altsasun

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

## IRAGARKI SAILKATUAK

## HIGIEZINAK

## ALOKATU

Etxe bat alokatzen da jardinarekin, Sakanan. Harremanetarako 690343978

## OHARRAK

Telebista saio baterako parte-hartzaile bila: Iruñerrian emititzen den Xaloe Telebistak Euskal City saioa grabatzen hasi zen Berriozarko egoitzan, maiztean. Euskal jendeari zuzendutako saioa da eta edozein adinetako jendearen bila

ari dira, hizkuntzaren ikasketa prozesuarekin zerikusia duten esperientziak elkarbanatuz (nola hasi ziren ikasten, zergatik, etab...). "Mintzapraktika bat da, baina, grabatuta. Ongi pasatzeko esperientzia bat, euskararen alde egiten den bitartean". Xaloe telebistatik diotenez, "zuen elkarte, herria, enpresa... promozionatzeko edota ikustarazteko, aukera bikaina da". Harremanetarako: xaloaprodukzioa@gmail.com edo 948 592 476 telefonoa (Izaskun Artigas)

**Adona**. Odol-emateak Irurtzunen: Irailaren 13an, 16:45-20:30. www.adona.es/eu

**Sakana Trenaren alde. Taldea astelehenero, 19:00etan, elkartzen da.** Behin behineko biitokia LABek Altsasun duen egoitzan da, han egiten dira bilerak.

**Nafarroako Elikagaien Bankuaren alde.** Diru ekarpenak kontu korronte hauetan egin daitezke: Laboral kutxa 3035 0069 52 0690024878, Rural kutxa 3008 0001 16 0700279128 eta Caixa 2100 2173 87 0200346965

www.iragarkiaburak.eus



**DEKOVEN NAVARRA**  
CARPINTERÍA DE P.V.C.

info@dekovenavarra.com  
www.dekovenavarra.com  
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia · **ALTSASU**  
Telf./Faxa: 948 468 360 · Telefono mugikorra: 690 641 860



ESKELA




## Tomas Auzmendi Rosa

Beti gure bihotzean

Altsasu eta Ziordiko zure lagunak

ESKELA



## Tomas Auzmendi Rosa

Eskerrik asko zugandik jaso dugun  
adiskidetasunagatik



Aitzkotzarreko zure lagunak

URTEURRENA



## Txaro Cerdán Calvo

V. urteurrena

Asko maite zaitugu

Zure familia

ESKERTZA



## Eugenia Aranburu Ijurra

Etzarri Aranatzan, 2018ko abuztuaren 15ean

"Gure ondotik ez da joango,  
guk ez badegu nahi.  
Bizi irrikaz zegoen  
gure maitasun zai  
eta beti gure ideiak  
amodioaren bidez erantzuten zituen alai"

Eskerrak Eugeniaren bidean lagundu gaituzuen guztiei  
Zure familia



ESKELA



## Joxepa Garziandia Fernandez

(Miguel Mauleonen alarguna)

Ama zintzue familiyandako,  
andre jator, zentzudune.  
Beti goguen uraiko degu  
iakusi zeniguna.

Etxekuek

Etzarri-Aranatzan, 2018ko abuztuaren 17an

OROIGARRIA



## Txuma Goikoetxea Napal

I. urteurrena

Erraza izan zen zu maitatzea, ezinezkoa  
ordea, zu ahaztea.

Beti egongo zara gure bihotzean

Zure familia

OROIGARRIA

## Jesus Mari Goikoetxea Napal

"Txuma"

I. urteurrena

"Alaitasunaren iturritik edan genuen elkarrekin  
oroimenean izango zara zu beti gurekin"

Irailaren 9an, igandean, goizeko 10:00etan, Altsasuko  
Jasokunde elizan meza ospatuko da.

Zure ilobak



## IZARRA

HEMEN, ZURE ONDOAN  
AQUÍ, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk  
zeinetan norbait  
ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU

Santa Cruz, 6

ETXARRI-ARANATZ

Nagusia, 2

948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com

tanatorioak  
**IRACHE**

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

☎ 948 19 70 70

🐦 @Grupolrache

📘 Grupolrache

🖱 www.tanatoriosirache.es



Guillem Albà &amp; La Marabunta taldea. UTZITAKOIA

## Pailazoak, musika, zoramena eta festa lortian: 'Marabunta'

Guillem Albà & La Marabunta taldearen ikuskizuna izanen da bihar, 19:30ean, lortia kultur gunean

### ALTSASU

Iortia kultur gunearen hama-bosgarren urteurrena "festa batekin, merezi bezala" ospatzeko Kataluniako Guillem Albà & La Marabunta taldearen *Marabunta* ikuskizuna izanen da estreinakoz Nafarroan bihar, irailaren 8an, 19:30ean, Altsasun. Festa aurreko egitarauaren barruan sartzen da emanaldia.

*Marabunta* "zoramena" da. Energia beteriko ikuskizun energetikoa, kultura zerbitzuak azaldu bezala. Ikuskizunak hiru urte daramatza biran eta berrehun emanaldi baino gehiago egin ditu.

Ikuskizunak hiru sari jaso ditu: 2015eko La Mostra Igualadako publikoaren saria, 2014ko Fira Titelles Lleidako publikoaren saria eta 2014ko Mostra Snata Eugeniako publikoaren saria. Bihar lehen aldiz egonen da Nafarroan.

Pailazo ikuskizuna da, baina zuzeneko eta ikuskizunerako propio egindako musikaz lagunduta dagoena. Taldeak ikuskizuna deskribitzeko erabilitako hitzak kaosa, energia eta zoramena dira: "nahasmena klasearekin".

Guillem Albà & La Marabunta taldearen ekoizpena da. Guillem Albà artista da ikuskizunaren zuzendaria eta pertsonailetako bat. Albà aktorea eta musikaria da. Interpretatzen zoriotsua dela dio Albàk. Zuzentzea eta ikuskizunak sortzea eta zuzentzea gustatzen zaiola dio ere *Marabunta* ikuskizuneko zuzendariak. Iñaki Markiegi da ikuskizunaren musika zuzendaria. Albà eta Markiegiarekin batera, Guillermo Cenizo, Martí Soler, Albert Comaleras, Àlar Montart eta Edgu Gomez arituko dira taularen gainean.

## Gastronomia ardatz duen literatura lehiaketa

Arbizuko Udalak antolatu du lehen aldiz literatura eta gastronomia bat egiten duen lehiaketa

### ARBIZU

Txistor Eguna ospatuko da beste urte batez urriaren 14an Arbizon. Horren harira Arbizuko Udalak sukaldaritza gai duen literatura lehiaketa antolatu du. Gaia, beraz, gastronomia da. Bi sail daude: narrazio laburra eta poesia; baina ez dira bertso-paperak onartuko. Euskaraz sortuak izan behar dira.

Lanak aurkezteko epea 2018ko irailaren 28an bukatuko da eta Internet bidez bidali behar dira [kultura@arbizu.eus](mailto:kultura@arbizu.eus) helbidera pdf formatuan. Datuak beste dokumentu batean bidali behar dira. Narrazio laburrak gutxienez 1500 karaktereko luzera izan behar du (orrialde 1) eta gehienez 3 orrialdekoa. Poesia lanek gutxienez 10 lerro izan behar dituzte eta gehienez 50 lerro.

Lanak originalak eta argitaratu gabek izan behar dira eta egile bakoitzak testu bat baino gehiago aurkez dezake, baina, bakarkako lanak izan behar dira. Sari banaketa urriaren 14an izanen da, Arbizuko Txistor Egunean. Sail bakoitzean sari bana banatuko da: 100 euro, eta narrazio laburra eta poesia biltzen duen argitalpen ilustratua. Informazio gehiago [www.arbizu.eus](http://www.arbizu.eus) web orrian.

laguntza eskuratu du: 18.649 euro. Deialdira aurkeztutako talde bakarra da.

Arte-erakundeei bideratutako diru-laguntza deialdia garagarriaren erdialdean aurkeztu zuen Altsasuko Udalak. 20.000 euroko diru-poltsa zuen, iazko aurrekontua baino 7.200 euro gehiago. Alkateak argitu zuen diru-laguntza bat izanik administrazio prozedura guztietan jarraitzen den prozedura bera jarraitu zela eta "epeak askotan astunak suerta daitezkeela".



BAZTERRETIK

JUNE TRECET OBESO

## Ziberaktibistak berriro borrokan!

Iraila bero dator Europako sareetan, irailaren 12an Copyrightaren direktiba berriaren helegiteak bozkatuko baitira Europar Parlamentuan. Bozketa hau ez da behin betikoa, ondoren direktiba guztiaren alde egin beharko dutelako berriro, baina pausu oso garrantzitsua izango da.

Egile-eskubideei buruzko legedi berri horren bi artikulutan zentratzen da protesta. Alde batetik, 11. artikulua ezartzen duena da, edukiaren jabearen baimena edo lizentzia izatea beharrezkoa izango dela hau eransteko edo indexatzeko. Hau da, biltzaileek edo sare sozialek editoreei ordaindu egin beharko diete babestutako lan baten zati bat erakutsi ahal izateko. Horren ondorioz, adibidez, Copyrighta duen prentsa guztiaren testuak ezin izango ditugu elkarbanatu.

Bestetik, 13.-aren arabera, gainera, sareko publikazio plataformek polizia papera hartu beharko lukete honen aurrean. Beraiek instalatu beharko litzateke filtroak erabiltzaileek igotzen dutenak egile-eskubideak puskatzen ez dituela ziurtatzeko. Kasu honetan, ondorioak handiak izango lirateke; zentsura plataforma horien eskuetan jarriko litzateke eta ez epaile baten eskuetan, helegite-

rako edo defentsarako aukerarik gabe, edo adibidez, aipurako eta parodiarako eskubideak urratuko lirateke sistematikoki, algoritmoek ez dituzte hauek kontuan hartuko eta komunikabide batek beste baten aipamena jarritz gero, zentsuratua izango litzateke eta bestalde, hainbeste gustatzen zaizkigun memeak, Copyright duen argazki batekin eginez gero, filtroak argi gorria ezarriko luke.

Honek guztiak ezagutzen dugun Internet sarea goitik behera aldatuko duela argi dago. Nire bizitzan garrantzia handia duen webgune batek arazo handiak izan ditzake, kultura askearen adierazle handienetako batek, Wikipediak. Aipamen asko erabiltzen ditu munduko entziklopedia handienak eta horrek arazoak ekarri ahal dizkio. Eta nola izango gara jakintsu Wikipedia gabeko munduan?

Irailaren 12ko bozketa baino lehen, Internet sare aske eta multinazional-poliziarik gabekoa nahi dugula esan ahal izateko Copyrightaren direktibaren aurkako talde ziberaktibistek webgune bat martxan jarri dute. Parlamentariekin modu erraz batean email edo telefono bidez kontaktuan jartzeko aukera daukagu [es.saveyourinternet.eu](mailto:es.saveyourinternet.eu) webgunean.



UTZITAKOIA

## Arte-erakundeei bideratutako diru-laguntza deialdia ebatzita

Haize Berriak bandak 18.649 euro jasoko ditu. Laguntza deialdira aurkeztutako talde bakarra izan da

### ALTSASU

Sakanako bandak agorriaren hasieran eman zuen haren egoera ekonomikoaren berri sare sozialen bidez. Altsasuko Udalarekin hitzarmena sinatzea luzatzen ari zela salatu zuen.

Javier Ollo Altsasuko alkateak, ordea, jakinarazi zuen ez zela hitzarmena, arte-erakundeei bideratutako diru-laguntza baidzik. Hortaz, diru-laguntza deialdia aztertu ondoren, Haize Berriak bandak dagokion diru-

## 'Satisfaction'

Smoking Stones musika taldeak kontzertua eskaini zuen larunbatean, irailaren 1ean, Altsasun. Nafarroako Gobernuaren Kultur programaren barruan aritu zen The Rolling Stones mitikoaren tributu taldea. Foru plaza rock'n'rollez bete zen, Smokin Stones taldeak egindako berrogei urteko ibilbide musikarekin.

# Urbasa-Andia Veneziako Mostra zinema jaialdian

Urbasako parajeetan filmatutako *The Sisters Brothers* filma mustu dute Veneziako Mostra jaialdian. Donostiako Zinemaldiaren Perlak sailean egonen da ere pelikula. Sakanako figuranteek parte hartu zuten Jacques Audiarden western-ean

## SAKANA

*The Sisters Brothers* Ameriketako Estatu Batuetako Oregon estatuan kokatzen da eta Sisters anaien istorioa kontatzen du. Bi anaiak soldatapeko hiltzaileak dira eta enkargu garrantzitsu bat hartu dute. Horretarako Ipar Ameriketan zehar bidaia egingo dute, eta Kanadako parajeak irudikatzen Jacques Audiard zuzendariak Urbasako natur parkea aukeratu zuen. Joaquín Phoenix eta John C. Reilly dira filmaren protagonistak.

Veneziako Mostran mustu dute *The Sisters Brothers* eta kritika onak jaso ditu. Urrezko lehoia eskuratzeko lehian dago. Donostiako Zinemaldiko Perlak sailean ere lehiatuko da. Ondoren, Toronto, London, Zurich, Belgika eta Busaneko zinema jaialdietan egonen dira. Irailaren 21ean estreinatuko da zinemetan.

2017ko garilean grabatu zuten eta filmatze lanak Sarasan, Sosan, Ubaban, Amekoako Limitazio mendian, Lezamenen, Kattaliturrin eta Olliden egin zituzten. Pelikula 1851. urtean kokatzen da eta pantaila handian Urbasako parajeak Kanada bihurtu dira, Jacsonville herrirak, hain zuzen. Horretarako hainbat dekoratu sortu zituzten natur parkean, XIX. mende bukaerako



Urbasan jarri zuten dekoratua. ARTXIBOA

Ameriketako Estatu Batuetako mendebaldeko eraikinak, esaterako. Zaldi gaineko eszenak ere egin zituzten Urbasa-Andian.

Iruñeko eta Altsasuko castingetan aukeratutako makina bat figurantek parte hartu zuten filmazioan. Hautaketa egiteko parte hartzaileek europar aurpegiera izan behar zuten eta gizonezkoen kasuan bizar eta bibote handiak izatea kontuan hartu zuten. Amerikar natiboen profila zutenak ere behar izan zituzten, baita 6 eta 12 urte bitarteko haurrak ere.

Patrick deWitt idazlearen *The frères sisters* nobelaren egokitzapena da filma. Bertan Ameriketako Estatu Batuetako mendebalde desmitikatzen da. Umorea, abenturak eta pikareska uztartzen ditu pelikulak, eta Jackes Audard zuzendariaren lehenengo westerna da.

Nazioarteko koprodukzioa da: Ameriketako Estatu Batuetako, Frantziako, Espainiako eta Errumaniako ekoiztetxeek parte hartu dute. Madrilgo Meñako film ekoiztetxea izan zen Urbasako filmaziaren arduraduna.



Alberto Angiano, Nerea Perez, Andoni Garabieta eta Javier Olló.

## Garabietaren Aske kartelak iragarriko ditu Altsasuko festak

Altsasukoak Aske eta berdintasuna aldarrikatzen du kartelak. Andoni Garabieta altsasuarraren lana da

### ALTSASU

Aldarrikapena da nagusi 2018ko Altsasuko festak iragartzen dituen kartelean. Andoni Garabieta Fortuna gazte altsasuarrak bi aldarrikapen islatu ditu festetako kartelean: Altsasukoak Aske kartelaren letretan ikusidateke, altsasuko gazteekin elkartasuneko elastikoetako tipografia baita; bestetik, berdintasuna ere presente dago kartelean, Altsasuko bi buruhandi emakumeen figurarekin, Dantzaria eta Sorgina.

Helduen modalitatean hamar lan aurkeztu ziren. Haien artean

epaimahaiak bi aukeratu zituen:

Aske eta Berriz alaitasuna. Herriarrek izan zuten azkeneko hitza eta bozken % 71k Aske kartela aukeratu zuten. Garabietak 600 euroko saria jaso zuen eta haren lana festetako egitarauaren azala da.

Haurren modalitatean 41 lan aurkeztu ziren eta epaimahaiak Nerea Perez Luis de Redinen lana aukeratu zuen. Perezek 60 euro eta margotzeko material lote bat jaso zituen Alberto Angiano Txartel dendako nagusiaren eskutik. Haren lana egitarauaren kontrazala da.



## Zirkua herrira iritsi da

Altsasan egin zen Ezin zailago! Nafarroako 17. zirkua jaialdia. Iortia kultur gunearen zabalgunean hiru kale ikuskizun egin ziren: Shakti Olaizolaren *Baldin Bada* ikuskizuna, Capicua taldearen *Koselig* antzerki-zirkua emanaldia eta La banda del otra-ren *Ye Haan* musikaz, zirkuz eta umorez beteriko emanaldia.

## Oihuarima Lakuntzan

Irantzu Gonzalez Azpiroz dantza eskolako taldeak dantza-emanaldia eskaini zuen Lakuntzako festetan. Hamar dantzarik hainbat dantza estilotako koreografiak dantzatu zituzten. Modern jazz, garaikidea, hip-hop, mugimendu afrikarrak eta euskal dantza uztartu zituzten, besteak beste. Koreografiak, gainera, arropa aldaketek lagundurik zeuden.



# Ramirez: "Oso eskertuta nago ziordiarrekin"

Futbola, areto futbola, saskibaloia, atletismoa... kirol horiek guztiak sustatzen ditu Jose Ramon Ramirez Perez ziordiarrek. Herritarren esker beroa jaso du, Ziordiko festen hasierako txupinazoa jaurtitzeko ohorea izan baitzuen

Maidar Betelu Ganboa ZIORDIA

## 1 Ziordiko festei hasiera eman diezu. Nork hartu zuen erabakia?

Ziordiko elkarteak urtero 6 pertsona izendatzen ditu festetako batzordea osatzeko. Urtero ezberdinak dira. Eta batzorde hau da festak antolatzen dituen: festetako musika eta kultur eta kirol emanaldi guztiak kontratatzen ditu, eta beraiek erabakitzen dute nork jaurtikiko duen txupinazoa. Ni hautatu ninduten, Ziordiko herri lasterketaren eta hainbat kirol ekitaldien antolakuntzan ibiltzen naizelako batik bat.

## 2 Eta nola hartu zenuen erabakia?

Oso pozik. 10-11 urte daramatzat Altsasun bizitzen, baina ziordiarra naiz eta niretzat ohorea izan da jaietako suziria piztu izana.

## 3 Beti kirolari lotuta; lehen futbol okalaria gehiago eta orain, kirol proben antolatzaile.

Futbolean Urdiainen jokatzen nuen eta areto futbolean Ziordikoekin eta Koxka Taberna-koekin. Koxka Tabernan talde bikaina genuen. Espainiako txapelkunak izan ginen, Europako Txapelketara joan eta bi-



Jose Ramon Ramirez, Ziordiko festen suziria pizteko unean.

garrenak sailkatu ginen... Urte oso onak izan ziren. Orain ez dut horrenbeste jokatzen, antolakuntzan nabil gehiago. Atletismo proba batzuetan hartzen dut parte, Sakanakoetan, baina antolakuntzan ibiltzea nahiago

dut. Semeak saskibaloira jokatzen du eta CBASK taldean ere juntan ibilia naiz.

## 4 Nola eman zenuen jokalaria izateko antolatzaile izaterako salto hori?

Duela bost urte korrika egitera joaten ginen lauzpabost laguni Ziordiko Herri Lasterketa antolatzea bururatu zitzaigun, herrian zerbait egiteko. Nahiko ongi ateratu zen eta dagoeneko 5 edizio daramatzagu. Hurrengo urtean, apirilean edo maiatzean jokatuko da 6. edizioa.

## 5 Ziordiko herri lasterketa, beraz, egonkortzen doa.

Bai, urtero jende gehiago dator, sare sozialetan jarraitzen gaituzte... gehienbat gure lasterketak helburu solidarioa duelako. Eta horregatik jendea gehiago inplikatzeko da, komertzioek produktu gehiago eta babes handiagoa ematen dizkigute.

## 6 Zein elkarte edo fundazio bastez dituzue?

Iruñeko Paris 365 Jantoki Sozialarekin eta Dravet Sindromea Fundazioarekin lan egiten dugu. Izena ematearen truke janaria, elikagaiak ekartzea da beharrezkoa gure lasterketan, eta bildutako janari hori Paris 365 Jantoki Sozialera bideratzen dugu. Horretaz gain, sare sozialetan Dravet Sindromearen Fundazioaren berri izan nuen, lasterketan euren kamisetarekin parte hartzen hasi nintzen, eta, ordutik, jantokia babesteaz gain, babesleek emandako produktuen lotekin Dravet Fundazioaren aldeko zozketak egiten ditugu gure lasterketan, eurek ere salmahaia jartzen dute, eta diru bilketan laguntzen dugu.

## 7 Horretaz gain, futbol eta saskibaloiko torneoak antolatzen ibili zara Ziordian.

Bai. Saskibaloian haur eta gaztetxoendako bi torneo antolatu

genituen. Haurrekin kirola sustatzea, hori da asmoa eta eurek oso ongi pasatzen dute. Bestalde, futbolean txikiendako txapelketa txikia antolatu dugu, Irañetan, Uhartan, Lakuntzan, Araian eta Ziordian jokatzen ari dena. Igandean, 16:30ean jokatuko da Ziordian. Helduendako ere futbol torneoak egin izan ditugu. Ekimen nahikotxo dira, baina ongi antolatuta ez dago arazorik aurrera ateratzeko.

## 8 Hurrengo denboraldirako zein asmo daude?

Dugunari eustea: saskibaloiko topaketa pare bat, Ziordiko herri lasterketa, Ziordiko festetako txikiendako lasterketa eta futboleko hiruzpalau ekimen, ekimen solidarioak.

## 9 Asteazkenean Ziordiko festetako lasterketa jokatzen, ezta?

Bai, txikiendako antolatzen dugu, urte batetik 15 urtera bitartekoekin. Parte hartzeko Dravet Fundazioak jarritako salmahaian zerbait erosi behar zuten, txikikeriaren bat. Bost kategoria inguru aritu ziren eta ez da proba lehiakorra, ez da sailkapenik egiten, haurren kirola sustatzea, hori baita gure helburua. Guztiek oparitxo berdina jaso zituzten.

## 10 Suzirian nor izan zenuen go-goan?

Herritarrei eskerrak eman nizekin nitaz gogoratzeagatik eta antolatuko ditugun ekitaldietan parte hartzera eta laguntza ematen jarraitzera animatu nituen. Bereziki, eskerrak eman nituen.

## 11 Ongi pasa festetan! Eskerrik asko!

## Bazkide zozketa

Garileko sariak:

**1. SARIA:**  
EKAINBERRI KOBAZULOAK: 2 SARRERA ARTAZAKO KANPINA: %10EKO DESKONTUA  
LACTURALE: ESNEKI LOTEA  
GAZTEZULO: 3 HILABETEZ DOAN

**2., 3. ETA 4. SARIA:**  
DONOSTIAKO AQUARIUM MUSEOA:  
SARRERA BANA  
ARTAZAKO KANPINA: %10EKO DESKONTUA  
LACTURALE: ESNEKI LOTEA  
GAZTEZULO: 3 HILABETEZ DOAN



